

tantai

BASO JABE KOOPERATIBA

ESTATUTU SOZIALAK

TANTAI BASO JABE KOOPERATIBA, KOOP. S.



AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. IZENA, XEDEA, EGOITZA SOZIALA, IRAUPENA ETA LURRALDE EREMUA 5

1. ARTIKULUA.	IZENA.....	5
2. ARTIKULUA.	XEDEA.....	5
3. ARTIKULUA.	EGOITZA SOZIALA.....	6
4. ARTIKULUA.	IRAUPENA ETA LURRALDE EREMUA	6
5. ARTIKULUA.	HIZKUNTZA OFIZIALA.....	6
6. ARTIKULUA.	ESTATUTUAK ALDATZEA	6

II. KAPITULUA. BAZKIDEAK..... 8

7. ARTIKULUA.	BAZKIDE IZAN DAITEZKEEN PERTSONAK	8
8. ARTIKULUA.	ONARTUA IZATEKO BALDINTZAK.....	9
9. ARTIKULUA.	ONARPENARI BURUZKO ERABAKIAK	13
10. ARTIKULUA.	ONARTZEKO PROZEDURA	13
11. ARTIKULUA.	ONARPENARI BURUZKO EBAZPENEN AURKAKO ERREKURTSOAK	13
12. ARTIKULUA.	ESKUBIDE ETA BETEBEHAR SOZIALEN HASIERA.....	14
13. ARTIKULUA.	BAZKIDEEN BETEBEHARRAK.....	14
14. ARTIKULUA.	BAZKIDEEN ESKUBIDEAK.....	15
15. ARTIKULUA.	INFORMAZIO ESKUBIDEA. MUGAK ETA BERME SISTEMAK.....	16
16. ARTIKULUA.	BAZKIDEAREN BORONDATEZKO BAJA.....	18
17. ARTIKULUA.	BAZKIDEAREN NAHITAEZKO BAJA.....	19
18. ARTIKULUA.	HIRUGARRENEKIKO ERAGIKETAK.....	20

III. KAPITULUA. DIZIPLINA SOZIALEKO ARAUAK ETA BARNE ANTOLAKETAKO OINARRIZKO ELEMENTUAK. 21

19. ARTIKULUA.	BAZKIDEEN ARAU HAUSTE MOTAK.....	21
20. ARTIKULUA.	ARAU HAUSTE SOZIALENGATIKO ZEHAPENAK.....	22
21. ARTIKULUA.	ZIGORTZEKO PROZEDURA	23
22. ARTIKULUA.	KANPORATZEA.....	24
23. ARTIKULUA.	FUNTZIONAMENDUAREN BARNE ANTOLAKETARI BURUZKO OINARRIZKO ELEMENTUAK.....	25

IV. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA..... 27

24. ARTIKULUA.	ORGANO SOZIALAK.....	27
25. ARTIKULUA.	BATZAR NAGUSIA.....	27
26. ARTIKULUA.	BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA	28
27. ARTIKULUA.	BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA.....	29
28. ARTIKULUA.	BOTO ESKUBIDEA	31
29. ARTIKULUA.	GEHIENGOAK	32
30. ARTIKULUA.	BATZAR NAGUSIAREN ERABAKIAK INPUGNATZEA.....	33
31. ARTIKULUA.	KONTSEILU ERREKTOREA. IZAERA ETA ESKUMENAK.....	33
32. ARTIKULUA.	KONTSEILU ERREKTOREAREN OSAERA ETA BERRITZEA.....	35



33. ARTIKULUA.	KONTSEILU ERREKTOREAREN FUNTZIONAMENDUA.....	37
34. ARTIKULUA.	KONTSEILU ERREKTOREARI BURUZKO XEDAPENAK	39
35. ARTIKULUA.	KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEEEN ERANTZUKIZUNAK ETA ERANTZUKIZUN AKZIOA	39
36. ARTIKULUA.	ERABAKIAK INPUGNATZEA	41
37. ARTIKULUA.	ZUZENDARI GERENTEA. IZENDATZEA ETA KARGUGABETZEA. ZUZENDARI GERENTEAREN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK.....	41
38. ARTIKULUA.	ZAINZA BATZORDEA	41
39. ARTIKULUA.	KONTSEILU SOZIALA	43
40. ARTIKULUA.	ERREKURTSO BATZORDEA.....	44

V. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA 46

41. ARTIKULUA.	ERANTZUKIZUNAK.....	46
42. ARTIKULUA.	KAPITAL SOZIALA.....	46
43. ARTIKULUA.	KAPITAL SOZIALERAKO NAHITAEZKO EKARPENAK	47
44. ARTIKULUA.	BORONDATEZKO EKARPENAK.....	48
45. ARTIKULUA.	EKARPENAK EGUNERATZEA.....	48
46. ARTIKULUA.	EKARPENEN INTERESA.....	48
47. ARTIKULUA.	EKARPENAK ESKUALDATZEA.....	49
48. ARTIKULUA.	EKARPENAK ITZULTZEA.....	49
49. ARTIKULUA.	PARTAIDETZA BEREZIAK.....	51
50. ARTIKULUA.	SARRERA KUOTAK, ALDIZKAKOAK ETA EZOHIKOAK	51
51. ARTIKULUA.	BESTE FINANTZAKETA BATZUK.....	51
52. ARTIKULUA.	SOBERAKIN GARBIAK.....	51
53. ARTIKULUA.	SOBERAKIN ERABILGARRIEN BANAKETA.....	52
54. ARTIKULUA.	NAHITAEZKO ERRESERBA FUNTSA ETA KOOPERATIBA HEZIKETA ETA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA.....	52
55. ARTIKULUA.	BORONDATEZKO ERRESERBA FUNTS BANAEZINA.....	53
56. ARTIKULUA.	GALERAK EGOZTEA.....	53
57. ARTIKULUA.	KONTU AUDITORETZA	54

VI. KAPITULUA.DOKUMENTAZIO SOZIALA ETA KONTABILITATEA 55

58. ARTIKULUA.	DOKUMENTAZIO SOZIALA.....	55
59. ARTIKULUA.	KONTABILITATEA.....	55
60. ARTIKULUA.	URTEKO KONTUEN GORDAILUA	56

VII. KAPITULUA..... DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA 57

61. ARTIKULUA.	DESEGITEKO ARRAZIOAK ETA ERABAKIA.....	57
62. ARTIKULUA.	LIKIDAZIOA.....	57
63. ARTIKULUA.	SOZIETATEAREN ONDASUNAK ESLEITZEA.....	57

AZKEN XEDAPENAK..... 59

LEHENA.-	ARBITRAJE KOOPERATIBOIA	59
BIGARRENA.-	LETRADU AHOLKULARIA.....	59
HIRUGARRENA.-	DELITUAK PREBENITZEKO EREDUA ETA SEGIMENDUA EGITEKO MEKANISMOAK	59



LAUGARRENA.-	KOOPERATIBA INDARKERIA SEXISTARIK GABEKO EREMU BAT IZATEKO BALIABIDE ESPEZIFIKOAK	60
BOSGARRENA.-	KOOPERATIBA ARRAZA EDO JATORRI ARRAZOIENGATIK DISKRIMINAZIORIK GABEKO EREMUA IZATEKO BITARTEKO ESPEZIFIKOAK	60



I. KAPITULUA. IZENA, XEDEA, EGOITZA SOZIALA, IRAUPENA ETA LURRALDE EREMUA

1. ARTIKULUA. IZENA

TANTAI BASO JABE KOOPERATIBA, KOOP. S. izenarekin Nekazaritza eta Elikadura Kooperatiba bat eratzen da, irabazi asmorik gabea, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen, abenduaren 20koaren, Printzipio eta Xedapenen eta ezarri beharreko gainerako lege aginduen arabera, baita estatutu hauetan eta, onartzen badira, barne araudietan xedatutakoaren arabera, zuzenbidearen arabera.

2. ARTIKULUA. XEDEA

Bat. Tantai Baso Jabe Kooperatibaren **oinarria** da baso kudeaketan nagusi den eredia eraldatzea. Mende bat baino gehiago bete delarik egurraren ekoizpena baso kudeaketa erregular eta intentsiboko eredu baten pean maximizatzen, kooperatibak baso kudeaketa irregularreko eta moldakorreko eredu bat ezartzen lan egingo du, bertako espezieen kudeaketan oinarritua, eta zerbitzu ekosistemiko guztien hornikuntza optimizatuko duena. XXI. mendeko erronka globalekin bat etorritik, kudeaketa horrek baso ekosistemen berezko biodibertsitatea mantentzen eta haien funtzionamendua bermatzen lagunduko du, zur, zelulosa, biomasa eta horrelako lehengaien hornidura alde batera utzi gabe.

Halaber, basoetan ekoiztako zerbitzu eta ondasun ekosistemikoek gizartean duten izaera transbertsala kontuan hartuta, Tantai Baso Jabe Kooperatibak ikuspuntu integral hori egitura kooperatibora bertara eramateko lan egingo du.

Bi. Kooperatiba honen **xede** soziala hau da:

- a) Bazkideen zein bazkide ez direnen mendietan sortutako zerbitzu ekosistemikoen –monetizagarriak edo ez– kudeaketatik datozen ondasunak batera kudeatzea, ustiatzea eta merkaturatzea, eta, hala badagokio eta legezko mugen barruan, baita ustiategi horietan egiten diren ekoizpen prozesuetan lortutako edozein produktu eta azpiproduktu ere.
- b) Hala badagokio, basogintzako zerbitzu eta produktu horien ekoizpena kudeatzeko, ustiatzeko eta merkaturatzeko prozesuari lotutako inputak merkaturatzea.
- c) Zerbitzuak eskaintzea eta baso kudeaketa irregular eta moldakorreko eredu baterantz eraldatzen laguntzea, bazkideen eta bazkide ez direnen mendietako espezie natiboak erabiliz, zeinean zerbitzu ekosistemiko guztien hornikuntza optimizatuko baita, biomasaren, zuntzen eta zuraren ekoizpena barne, edo deskarbonizazioa, CO₂ emisioen xurgapena optimizatuz.
- d) Bazkideei eta, hala badagokio, bazkide ez direnei ezagutzak eta ekipamenduak ematea eta ustiatzearen ikerketa, mekanizazio eta berrikuntzan laguntzea, aurreko puntuan deskribatutako eraldaketa prozesua optimizatuz, baita horri lotutako mendietan sortutako ondasun eta zerbitzu ekosistemikoak optimizatuz ere.
- e) Kooperatibaren baso antolamendu eta kudeaketa eredian lortutako ezagutzak eta esperientzia sustatzea eta zabaltzea, hezkuntza edo kultura jardueren bidez.



- f) Zerbitzu teknikoak, kudeaketakoak, juridikoak, aseguruetakoa, merkaturatzekoak eta basogintzakoak kontratatzea, bazkide diren zein ez diren nekazaritza ustiategiaren onurarako.
- g) Era berean, bere langileekin zerbitzuak eman ahal izango ditu, aipatutako ustiategietan baso lanak eta antzekoak egiteko, eta ustiategiotako bazkideen alde.
- h) Bazkideen ustiategiak, haien elementuak edo osagaiak, kooperatiba bera eta kokatuta dagoen landa ingurunea edozein arlo edo alderdi ekonomiko sozialetan hobetzera bideratutako edozein eragiketa egitea.
- i) Xede sozialean jasotako jardueraren bat profesionalen kategoria jakin baterako erreserbatuta badago edo legez erreserbatzen bada, eskatutako titulazioa duen pertsonaren bidez egin beharko da, eta xede soziala prestazio horiei loturiko bitartekaritza edo koordinazioan zehaztuko da.
- j) Xede Soziala osatzen duten jarduerak, osorik edo partzialki, zeharka garatu ahal izango dira, xede bera edo antzekoa duten beste sozietate batzuetan parte hartuz, zeinek, azken batean, xede soziala betetzen laguntzen duten.
- k) Azkenik, kooperatibaren edo bazkideen ustiategiaren hobekuntza ekonomiko, tekniko, laboral edo ekologikorako oinarria, ondorioa, osagarria edo tresna den beste edozein jardura egin ahal izango du.

3. ARTIKULUA. EGOITZA SOZIALA

Egoitza soziala hau da: Errotabarri kalea, 5, 01160 Aramaio (Araba) eta udalerrri berean aldatzea erabaki ahal izango du Kontseilu Errektoreak, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 78. eta 79. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

4. ARTIKULUA. IRAUPENA ETA LURRALDE EREMUA

Bat. Sozietatearen iraupena mugagabea izango da, eta eraketa eskritura publikoa ematen denean hasiko ditu operazioak.

Bi. Jardueraren lurralde eremua Euskal Autonomia Erkidegoa edo Euskadi da, kooperatibak hor egiten baitu nagusiki bere jardura kooperatibizatua, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen amaierako azken xedapenean xedatutakoaren arabera, Kooperatibei buruzko uztailaren 16ko 27/1999 Legearen 2.a) artikuluari dagokionez.

5. ARTIKULUA. HIZKUNTZA OFIZIALA

Euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofizialtzat hartzen da.

6. ARTIKULUA. ESTATUTUAK ALDATZEA.

Bat. Estatutu Sozialen aldaketa Batzar Nagusiak onartu behar du, baldintza hauek beteta:

- a) Kontseilu Errektoreak idatzizko txosten bat egin behar du, proposamenaren justifikazio xehatuarekin.
- b) Deialdian, behar bezalako argitasunez, aldatu behar diren puntuak adierazi behar dira.
- c) Deialdiaren iragarkian berariaz jasotzea bazkide guztiek dutela eskubidea proposatutako aldaketaren eta hori justifikatzen duen txostenaren testu



osoa egoitza sozialean aztertzeko. Eta baita dokumentu horiek eskuratzeko edo dohainik bidaltzeko eskatzeko eskubidea ere.

- d) Batzar Nagusiak gehiengo soilez hartzea erabakia.
- e) Izen, egoitza edo xede soziala aldatzeko erabakia, gainera, kooperatibaren egoitza soziala dagoen lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari batean argitaratuko da, inskribatu aurretik.

Erabakia, onartutako testuarekin, eskritura publikoan jasoko da, eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuko da.

- Bi.** Aldaketa, berez, kooperatiba mota aldatzean badatza, erabakiaren alde bozkatu ez duten bazkideek sozietatetik bereizteko eskubidea izango dute, eta baja justifikatutzat joko da. Eragindako bazkide guztiek baliatu ahal izango dute eskubide hori, erabakia Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu eta hurrengo berrogei eguneko epea igaro arte.



II. KAPITULUA. BAZKIDEAK

7. ARTIKULUA. BAZKIDE IZAN DAITEZKEEN PERTSONAK

Bat. BAZKIDE KOOPERATZAILEAK

A) Bazkide erabiltzaileak: Nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza ustiategiaren titularrak dira, edozein konfigurazio juridikoren pean dihardutenak (jabeak, errentariak, gozamedunak, etab.), zerbitzu ekosistemikoen kudeaketatik eratorritako ondasunak ekoizten dituztenak (xede sozialean deskribatutakoarekin bat ez datozenak edo diru bihur daitezkeenak), lursailen hedadura edozein dela ere, baldin eta lursailok baso erabilerakoak badira eta kooperatibaren premisetan oinarritzen badira, xede sozialean deskribatutako baso kudeaketaren eredu kooperatibarekin lotzen diren mendi guztietan eraldatzen laguntzeko.. Pertsona horiek pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke, publikoak edo pribatuak, edo legean aurreikusitako nortasun juridikorik gabeko erakundeak, dagokien ustiategiaren erregistroan halakotzat inskribatuta daudenak, haien dedikazioa eskusiboa edo partziala den kontuan hartu barik.

Instituzio hori arautzen duen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituen titulartasun partekatua kasuan, titulartasun partekatuko erakundea bera izango da bazkidea, berariazko erregistroan inskribatuta. Dena den, hura osatzen duten lagunetatik edozeinek ordezkatu ahal izango du, erregistro horretako ziurtagiria aurkeztuta. Azken hori nortasun juridikorik gabeko gainerako erakundeei aplikatuko zaie.

B) Bazkide langileak, honako ezaugarri hauek dituztenak:

1. Lan bazkide gisa onartutako kooperatibako langileak hala izan ahalko dira denbora mugagabean edo denbora jakin baterako, baina automatikoki galduko dute bazkide izaera langile izaera galtzen dutenean.
2. Lan bazkideek kooperatibaren zerbitzura egingo dute lan, horrekin lotuta ezarritako lan arauak betez eta jarraibideak aintzat hartuz, kooperatibako organo eskudunek zehaztutako funtzio eta egitura antolamenduaren barruan.
3. Lan bazkideen funtzio horien ordainsaria (lan aurrerakinak) Kontseilu Errektoreak erabakitakoaren arabera arautuko da.
4. Kapital sozialaren tratamendu ekonomikoa eta soberakinetako partaidetza estatutu hauetan xedatutakoaren arabera arautuko dira.
5. Gizarte Segurantzaren estalduraren ondorioetarako, kooperatibak, bere lan bazkideei –finkoei nahiz probaldian daudenei– estaldura emateko, besteren konturako langileekin duten antzekotasuna dela tarteko, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean txertatuko ditu.

Bi. BAZKIDE LAGUNTZAILEAK

Jarduera kooperatiboan zuzenean parte hartu gabe ere, xede soziala lortzen lagundu dezaketen eta, jarduera nagusi edo osagarriren batean parte hartuz, gainerako bazkideekin interes komuna dutela egiaztatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak dira.

Bazkide laguntzaileak onartzeko erabakiak Kontseilu Errektoreak hartuko ditu; eta bazkide laguntzaile horiek epe jakin baterako onartu ahal izango dira.



Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiek ezarriko dituzte onartutako bazkideen lankidetzaren baldintzak eta gainerako eskubide eta betebeharrak espezifikokoak.

Hala ere, 13. eta 14. artikuluetan adierazitako betebeharrak eta eskubideak izango dituzte, baldin eta bateragarriak badira espezifikoeekin eta hitzartutako lankidetzarekin.

Bazkide laguntzaileek kapital sozialerako hasierako ekarpen bat egin beharko dute, eta nahitaezko ekarpen berriak egitera behartuta egongo dira, gainerako bazkideak bezala, Batzar Nagusiak bestelakorik erabakitzen ez badu behintzat; orobat, Batzar Nagusiak borondatezko ekarpenak egiteko baimena ere eman diezaieke.

Haien boto eskubidea 28. artikuluan arautzen da. Ondorio horretarako, alderdi produktibo eta komertzialei buruzko erabakiak hartzeko, eta haietan eragin ekonomikoa dutenak hartzeko, eskubideak kooperatiban garatzen duten jarduerari baino ez dagozkio, edo kooperatibaren jardueran laguntzen duten zati proportzionalari.

Hiru. BAZKIDE EZ-AKTIBOAK ETA BAZKIDE EZ-ERABILTZAILEAK

Bazkide ez-aktiboen izaera lortu ahal izango dute, gutxienez 10 urteko antzinatasuna izanik, justifikatutako edozein arrazoiengatik kooperatiban behin betiko lan egiteari uzten dioten bazkide langileek; bazkide ez-erabiltzaileen izaera, berriz, gutxienez 5 urteko antzinatasuna duten pertsonak, baldin eta justifikatutako arrazoiengatik kooperatibaren zerbitzuak erabiltzeari uzten badiote,, baina kooperatibaren zerbitzuak erabili dituzten aldi kooperatibarekin lotutako mendietan basogintza kudeatzeko eredu eraldatzeko kooperatibak eskatzen dituen baldintzak bete badituzte.

Haien betebeharrak eta eskubideak estatutu hauen 13. eta 14. artikuluetan xedatutakoak izango dira.

Boto eskubidea 28. artikuluan arautzen da.

Ekonomikoak ez diren eskubide eta betebeharrak gauzatzeko, bazkide aktiboei aplikatzen zaizkien irizpide baliokideak erabiliko dira.

Lau. ESZEDENTZIAN DAUDEN BAZKIDEAK

Eszedentzian dagoen bazkide izaera har dezakete aldi batez jarduera egiteari utziko dioten bazkide kooperatzaileek zein laguntzaileek, baldin eta idatziz hala eskatzen badiote Kontseilu Errektoreari. Kontseilu Errektoreak, egingo duen lehenengo bileran ebaziko du eskaera, eta, betiere, eskaera eragin duen egoera hasi baino lehen, eskaera alde aurretik egin bada.

Kooperatibaren martxaren gaineko informazioa edukitzeko eskubidea izango dute, bai eta Batzar Nagusian parte hartzeko ere. Boto eskubidea 28. artikuluan arautzen da.

Aldi baterako eszedentzian dauden bazkide erabiltzaileen kasuan, bazkide horrek dituen mendi elkartuetan hasitako baso kudeaketaren eredu eraldatzen jarraitzeko konpromisoari eutsiko zaio.

8. ARTIKULUA. ONARTUA IZATEKO BALDINTZAK

Bat. Pertsona bat ustiategi baten titular den bazkide laguntzaile (bazkide erabiltzaile) gisa onartua izateko, baldintza hauek bete beharko ditu:



-
- a) Hemezortzi urtetik gorakoa izatea, edo nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun nahikoa izatea, edo titulartasun partekatuko erakundea edo Legean aurreikusitako nortasun juridikorik gabeko erakundea izatea.
Titulartasun partekatuko erakundeek bazkide izaera izango dute, eta horietako edozein kidek ordezkatu ahal izango ditu, titulartasun partekatuko erakunde bakoitzaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuta.
 - b) Titular den ustiategian, bai jabe gisa, bai errentari gisa, bai gozamedun gisa, etab., ekoizpen jarduera egitea, kooperatibak unean-unean ezartzen dituen betekizunak betez eta zehazten duen moduan, eta kooperatibaren xede sozialarekin bat etorritz.
 - c) Kapital sozialerako ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta estatutu sozial hauetan bazkide horientzat ezartzen den hasierako nahitaezko ekarpena, edo Batzar Nagusiak erabaki eta indarrean dagoena, egitea.
 - d) Estatutu sozial hauetan halako bazkideentzat ezartzen den parte hartze konpromisoa onartzea: Kooperatibari atxikitako mendietan ekoizten diren zerbitzu ekosistemikoetatik eratorritako ondasunen –monetizagarriak izan ala ez– ekoizpena bideratzea lehenestea, bai eta aipatutako ondasunak kooperatibaren bidez merkaturatzea lehenestea, kooperatibak ematen dituen zerbitzuak erabiltzea eta kooperatibak ondasun horiek ekoizteko merkaturatzen dituen produktu guztiak erostea ere.
Konpromiso hori betetzeari utzi ahal izateko, Kontseilu Errektoreak berariazko salbuespena egin behar du, bazkideak, idatziz eta behar bezala arrazoituta, hala eskatzen duenean.
 - e) Kooperatibaren organo sozialek baliozkotasunez hartutako erabakiak eta indarreko legeria kooperatiboa onartzea eta betetzea, baita estatutu sozial hauek eta barne araudia ere.
 - f) Kooperatiban gutxienez urtebetez egoteko konpromisoa hartzea. Hori guztia indarrean dagoen legeria urratu gabe; horrek ez du esan nahi, ordea, baja kasuan edo jarduera uzten denean, indarrean dauden konpromisoei dagokien zatia ordaintzeko obligazioa bete beharko ez denik, baldin eta bazkide bakoitzak berariaz eta banaka bere gain hartzen badu, eta Batzar Nagusiaren erabakian hala jasotzen bada, Kontseilu Errektoreak baimen arrazoitua eman ezean.
 - g) Onarpena eskatzea, Kontseilu Errektoreari zuzendutako idatzizko eskaera bidez.
 - h) Kooperatibari atxikitako mendien baso kudeaketarako eredu baso kudeaketa irregularrerako eta moldakorrerako eredu bihurtzeko edo mantentzeko konpromisoa onartzea, bertako espezieak erabiliz, zerbitzu ekosistemiko guztien hornikuntza optimizatzeko, biomasaren, zuntzen eta zuraren ekoizpena barne. Konpromiso hori urtero berrituko da, eta barne araudiaren mende egongo da.

Bi. Pertsona batek, lan bazkide mugagabe gisa onartua izateko, baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Bere lana kontratatzeko legezko ahalmena izatea.
- b) Kapital sozialerako ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta estatutu sozial hauetan bazkide mota horrentzat ezarritako hasierako nahitaezko ekarpena –edo, bestela, Batzar Nagusiak erabakitakoa eta indarrean dagoena– egitea.



- c) Estatutu hauetan bazkide mota horrentzat ezartzen den parte hartze konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibaren organo sozialek baliozkotasunez hartutako erabakiak eta indarreko legeria kooperatiboa onartzea eta betetzea, baita estatutu sozial hauek eta barne araudia, hala badagokio.
- e) Probaldia behar bezala gainditzea. Probaldia sei hilabetekoa izango da gehienez, Kontseilu Errektoreak ezarritako lanpostuetan izan ezik, baldin eta horietan baldintza profesional bereziak bete behar badira; kasu horretan, probaldia hemezortzi hilabetekoa izango da gehienez.

Probaldi horretan zehar:

- Kooperatibak eta lan bazkide mugagabea izateko izangaiak harremana eten ahal izango dute, alde bakarreko erabaki askearen bidez.
- Ezin izango da sozietatearen organoetako karguetarako hautatua izan.
- Ez du kapital sozialerako hasierako ekarpena egiteko betebeharririk izango, ezta sarrera kuota ordaintzeko ere.
- Probaldian zehar kooperatiban gertatzen diren galerak ez zaizkio egotziko.

- f) Onarpena eskatuko da, Kontseilu Errektoreari zuzendutako eskaera bidez.

Hiru.

Pertsona batek, iraupen jakineko lan bazkide moduan onartua izateko, baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Bere lana kontratatzeko legezko ahalmena izatea.
- b) Kapital sozialerako ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta estatutu sozial hauetan bazkide mota horrentzat ezarritako hasierako nahitaezko ekarpena –edo Batzar Nagusiak erabakitakoa eta indarrean dagoena– egitea.
- c) Estatutu hauetan bazkide mota horrentzat ezartzen den parte hartze konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibaren organo sozialek baliozkotasunez hartutako erabakiak eta indarreko legeria kooperatiboa onartzea eta betetzea, baita estatutu sozial hauek eta barne araudia, hala badagokio.
- e) Sozietate kontratu bat sinatzea, non behar diren klausula guztiak jasoko diren, eta, gainera, kooperatibarekiko sozietate harremana aldi baterako izango dela berariaz adieraziko den.
- f) Onarpena eskatzea, Kontseilu Errektoreari zuzendutako eskaera bidez.

Lau.

Pertsona batek, bazkide laguntzaile moduan onartua izateko, baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Hemezortzi urtetik gorakoa izatea, edo nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun nahikoa izatea, edo titulartasun partekatuko erakundea edo Legean aurreikusitako nortasun juridikorik gabeko erakundea izatea.
- b) Kapital sozialerako ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta estatutu sozial hauetan bazkide mota horrentzat ezarritako hasierako nahitaezko ekarpena –edo Batzar Nagusiak erabakitakoa eta indarrean dagoena– egitea.
- c) Estatutu hauetan bazkide mota horrentzat ezartzen den parte hartze konpromisoa onartzea.



d) Kooperatibaren organo sozialek baliozkotasunez hartutako erabakiak eta indarreko legeria kooperatiboa onartzea eta betetzea, baita estatutu sozial hauek eta barne araudia ere.

e) Onarpena eskatzea, Kontseilu Errektoreari zuzendutako eskaera bidez.

Bost. Pertsona batek, bazkide ez-aktibo edo ez-erabiltzaile moduan onartua izateko, baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Ustiategi bateko bazkide kooperatzaile titularra (bazkide ez-erabiltzailea) edo lan bazkidea (bazkide ez-aktiboa) izana.

b) Kooperatibaren jardueraren xede den ekoizpen jarduera, ustiatagia edo lan bazkide gisa ematen duen prestazioa utzi izana, justifikatutako arrazoiengatik, baldin eta jarduera bera beste ustiatagi batean edo beste kooperatiba batean egiten ez badu.

c) Bazkide modalitate honetara aldatzeko eskatzea, Kontseilu Errektoreari eskaera eginda, lan bajarekin –lan bazkideen kasuan– edo kooperatibaren jardueraren xede den ekoizpen jarduera utzi izanaren egiaztagiriarekin batera.

d) Kapital sozialerako ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta estatutu sozial hauetan bazkide hauentzat ezartzen den hasierako nahitaezko ekarpena –edo Batzar Nagusiak erabaki eta indarrean dagoena– egitea, indarreko konpromisoei dagokien zatia ordaintzeko betebeharraren kalterik gabe, baldin eta bazkide bakoitzak, berariaz eta banaka, onartu egiten badu eta Batzar Nagusiaren erabakian hala jasota badago, Kontseilu Errektoreak baimen arrazoitua eman ezean.

e) Kooperatibarekin adosten duen parte hartze konpromisoa onartzea.

f) Kooperatibaren organo sozialek baliozkotasunez hartutako erabakiak eta indarreko legeria kooperatiboa onartzea eta betetzea, baita estatutu sozial hauek eta barne araudia ere, halakorik egonez gero.

Sei. Pertsona batek, eszedentzian dagoen bazkide moduan onartua izateko, baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Ustiategi bateko titularra den lan bazkide edo bazkide kooperatzaile izatea (bazkide erabiltzailea).

b) Borondatezko eszedentzian edo nahitaezkoan egotea, edo ekoizpen jarduera ezin egitea, Kontseilu Errektorearen iritziz, justifikatutako arrazoiengatik.

c) Bazkide modalitate honetara aldatzeko eskatzea, Kontseilu Errektoreari zuzendutako eskaera bidez eta modalitate aldaketa hori justifikatzen duten inguruabarrak egiaztatuz.

d) Kooperatibarekin adosten duen parte hartze konpromisoa onartzea; horrek ez du esan nahi, ordea, indarrean dauden konpromisoei dagokien zatia ordaintzeko obligazioa bete beharko ez duenik, baldin eta bazkide bakoitzak berariaz eta banaka bere gain hartzen badu, eta Batzar Nagusiaren erabakian hala jasotzen bada, Kontseilu Errektoreak baimen arrazoitua eman ezean.

e) Kooperatibaren organo sozialek baliozkotasunez hartutako erabakiak eta indarreko legeria kooperatiboa onartzea eta betetzea, baita estatutu sozial hauek eta barne araudia ere, halakorik egonez gero, modalitate berrirako, alegia, eszedentzian dagoen bazkide modalitaterako.



- f) Kooperatibarekin adosten duen parte hartze konpromisoa onartzea.

9. ARTIKULUA. ONARPENARI BURUZKO ERABAKIAK

- Bat.** Bazkideak onartzeari buruzko erabakia Kontseilu Errektoreari dagokio.
- Bi.** Bazkideak onartzeko erabakia soilik mugatu ahal izango dira arrazoi hauek badira oinarri:
- a) Kooperatibaren zerbitzuaren ahalmena.
 - b) Kooperatibaren antolaketa eta funtzionamendurako behar diren bazkide berrien beharrian objektiboak.
 - c) Zuzendaritzak probaldia dela-eta egindako txostenak.
 - d) Eskatzailea onartzeko estatutu hauetan ezarritako baldintza objektiboak ez betetzea.

Xede sozialari dagokionez, onarpenari baiezkoa edo ezezkoa ematea ezin izango da inolako bereizkeriarik eragiten duten arrazoietan oinarritu.

10. ARTIKULUA. ONARTZEKO PROZEDURA

- Bat.** Onarpen eskaera idatziz egingo zaio Kontseilu Errektoreari, eta hark 60 eguneko epea izango du ebazpena emateko, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- Bi.** Aipatutako epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, onarpena onartutzat emango da.

- Hiru.** Onarpenari buruzko erabakia idatziz jakinaraziko zaio interesdunari, eta arrazoitua izango da ukatzeko ebazpena ematen bada. Epe horretan berariazko ebazpenik ez badago, onarpena onartutzat joko da.

Nolanahi ere, Kontseilu Errektoreak kooperatibako iragarki taulan argitaratu beharko du onartzeko edo ez onartzeko erabakia.

- Lau.** Iraupen jakineko lan bazkideen kasuan, egoera horretan hiru urte daramatenean, iraupen mugagabeko bazkide izateko aukera izango dute, eta aldi hori bost urtekoa bada, beti eskuratuko dute izaera hori. Kontseilu Errektoreak Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 26.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo du.

Kasu horretan, iraupen jakineko sozietate kontratuan, bazkidearen eskubideak agertu beharko du, hau da, lan bazkide mugagabea izateko aukera, baldin eta gutxienez hiru urteko aldia metatzen badu egoera horretan, eta jasota utzi beharko da iraupen jakineko sozietate kontratua indarrean dagoela eta haren lotura bost urtera iritsi baino lehen egikaritu beharko duela.

11. ARTIKULUA. ONARPENARI BURUZKO EBAZPENEN AURKAKO ERREKURTSOAK

- Bat.** Ez onartzeko erabakia erabaki arrazoitua izan beharko da eta erabaki horren aurka errekurtsoa jarri ahal izango du eskatzaileak Errekurtsio Batzordearen aurrean, edo, halakorik egon ezean, Batzar Nagusiaren aurrean, ez onartzeko erabakia jakinarazten denetik zenbatzen hasi eta hogeita eguneko epean. Errekurtsio batzordeak hogeita hamar eguneko epean ebatzi beharko du errekurtsoa, isilpeko bozketa bidez, edo bestela, hala badagokio, egiten den lehenengo Batzar Nagusiak ebatziko du. Eta kasu bietan nahitaezkoa izango da interesdunari alde aurretik entzutea.



Bi. Onartzeko erabakia Errekurtso Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango da edo, bestela, egiten den lehen Batzar Nagusian, gutxienez bazkideen %10ek eskatuta (aukerako ehunekoa), onartzeko erabakia jakinarazi eta hogeit eguneko epe beraren barruan.

Errekurtso Batzordeak hogeita hamar eguneko epea izango du ebazpena emateko, eta Batzar Nagusiak, berriz, izango duen lehenengo bileran ebatzi beharko du, isilpeko bozketa bidez. Kasu bietan, nahitaezkoa izango da interesdunari alde aurretik entzutea.

12. ARTIKULUA. ESKUBIDE ETA BETEBEHAR SOZIALEN HASIERA

Bat. Onartutako bazkidearen eskubide eta betebeharrak sozialek onarpenaren erabakia hartu zen egunetik izango dute eragina.

Bazkide izaera eskuratzea etenda geratuko da onarpena errekurritzeko epea igaro arte edo, onarpena errekurritu bada, Errekurtso Batzordeak, edo, hala badagokio, Batzar Nagusiak errekurtsua ebatzi arte.

Bi. Lan bazkidegaiek, beren probaldian, lan bazkideen eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, honako berezitasun hauekin:

- a) ezin izango dira sozietatearen organoetako karguetarako aukeratuak izan
- b) ez dute kapital sozialera ekarpenik egiteko betebeharrak izango, ezta sarrera kuota ordaintzeko betebeharrak ere
- c) probaldian zehar kooperatiban gertatzen diren galerak ez zaizkie egotziko.

13. ARTIKULUA. BAZKIDEEN BETEBEHARRAK

Bat. Hona hemen bazkideen betebeharrak:

- a) Batzar Nagusietara, eta, joateko deituak izanez gero, gainerako organoen bileretara joatea.
- b) Karguren baterako izendatuak izan badira, hori onartzea, ez onartzeko bidezko arrazoi bat dagoenean izan ezik.
- c) Kooperatibaren xede soziala osatzen duten jardueretan parte hartzea. Ondorio horietarako, parte hartzeko gutxieneko modulu edo arau batzuk zehazten dira, kooperatibako bazkide mota bakoitzerako; hauek:
 - Ustiatetik titular diren bazkideentzat (bazkide erabiltzaileak): atxikitako mendiaren ekoiztutako zerbitzu ekosistemikoetatik eratorritako ondasunak –monetizagarriak edo ez– entregatzea, eta kooperatibak bere ustiatetik ekoiztutako eskura jartzen dizkien inputak eta zerbitzuak eskuratu eta eskatzea kooperatibari, Kontseilu Errektoreak baimendu ezean.
 - Lan bazkideentzat: dagokion legeriak ezartzen duen gutxieneko lanaldia egitea.
 - Bazkide laguntzaileentzat, ez-aktiboentzat, ez-erabiltzaileentzat eta eszedentzian daudenentzat: kooperatibaren esanetara egotea, lankidetzan aritzeko eta xede soziala garatzeko eta hobetzeko agintzen zaizkien eginkizunak betetzeko.
- d) Kooperatibak lantzen duen xede sozialarekin lehian sartzen den jarduerarik ez egitea eta jarduera horiek egiten dituztenekin lankidetzan ez aritzea, Kontseilu Errektoreak berriaz baimentzen ez baditu behintzat.



- e) Kooperatibako jardueri eta datuei buruzko sekretua gordetzea, horiek zabaltzeak interes sozialak kaltetu ditzakeenean.
- f) Kapital sozialerako ekarpenak aurreikusitako baldintzetan ordaintzea, eta aldizkako kuotak ezartzen diren epeetan ordaintzea.
- g) Galeren egozpena onartzea, Batzar Nagusiak erabakitako zenbatekoan.
- h) Kooperatibako bazkide erabiltzaile gisa gutxienez urtebetez egotea, sozietatearekin aldi baterako lotura txikiagoa duten bazkideak izan ezik.
- i) Kooperatiban giro sozial egokia eta errespetuzko bizikidetzatza izaten laguntzea, kooperatibarekin leial izanik.
- j) Eskuratutako ondasunak eta zerbitzuak ordaintzea kooperatibari, adostutako baldintzetan eta epeetan.
- k) Lan bazkideek lege ezarritako adinean hartzea erretiroa.
- l) Lege arauetatik eta estatutuetatik eratortzen diren gainerako betebeharrak betetzea, baita kooperatibako organoek baliozkotasunez hartutako erabakietatik datozenak ere.

14. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ESKUBIDEAK

Bat. Hauek dira bazkideen eskubideak:

- a) Kooperatibako organoen karguetarako kideak aukeratzeko eta horietarako aukeratuak izateko eskubidea.
- b) Batzar Nagusian eta kide diren gainerako organoetan proposamenak egiteko eta hartzen diren erabaki guztietan parte hartzeko eskubidea, hitzez eta botoa emanez.
- c) Beren ustiatagietako produkzioa kooperatibari entregatu eta merkaturatzeko eskubidea, produkzioa programatzeko parametroen eta, hala badagokio, kooperatibak bere xede soziala garatzeko ezarritako merkaturatze plangintzaren barruan.
- d) Kooperatibak eskaintzen dituen produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko eta beren ustiatagitik entregatutako produktuei dagokien ordainketa jasotzeko eskubidea, kasu bakoitzean ezarritako epe eta baldintzetan.
- e) Kooperatibako jarduera guztietan bereizkeriarik gabe parte hartzeko eskubidea.
- f) Eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazioa jasotzeko eskubidea. Horrek ez du esan nahi, ordea, estatutu sozial hauetako hurrengo artikuluan xedatutakoa bete beharko ez denik.
- g) Kooperatibako organo sozialek hartutako erabaki baliodunak betearaztea.
- h) Estatutu hauen esparruan barne ordenamendu juridikoaren aldaketak sustatzea.
- i) Kapital sozialerako ekarpenak eguneratzea eta, hala dagokionean, itzultzea, eta, hala badagokio, horien interesak jasotzea, Batzarrak hala erabakitzen duenean, ezartzen den moduan eta zenbatekoan, Kooperatiba irabazi asmorik gabekotzat jotzeko muga barruan.
- j) Lan bazkideek kooperatiban egitea beren lana, iraupen jakineko sozietate lotura iraungi arte edo erretiroa hartu arte, eta horri dagokion lan aurrerakina jasotzea.
- k) Kooperatibako organo sozialek hartutako erabaki baliodunak betearaztea.



- l) Legeetatik eta estatutuetatik eratortzen diren gainerakoak.
- Bi.** Bazkide guztientzat berdinak diren eskubide sozial hauek lege eta estatutu arauen eta kooperatibako organoek hartutako erabaki eta ebazpen baliodunen arabera baliatuko dira.

15. ARTIKULUA. INFORMAZIO ESKUBIDEA. MUGAK ETA BERME SISTEMAK.

Bat. Bazkideek informazioa jasotzeko eskubidea baliatu ahal izango dute legean, estatutuetan edo Batzar Nagusiaren erabakietan aurreikusitako moduan, zeinetan egoki irizitako bideak jarri ahal izango baitira bazkideen eskubide hori ahalbidetu eta gauzatzeko.

- Bi.** Bazkide orok izango du eskubidea:
- Kooperatibaren estatutu sozialen kopia bat eskatzeko eta, hala badagokio, baita barne araudiarena ere.
 - Kooperatibako Bazkideen Erregistro Liburua eta Batzar Nagusiaren Akten Liburua aztertzeko, eta, eskaera arrazoitua egin ondoren, aktaren eta Batzar Nagusian hartutako erabakien kopia ziurtatua eskuratzeko, baita Bazkideen Erregistro Liburuko inskripzioen ziurtagiria ere.
 - Kontseilu Errektoreak hartzen dituen eta bazkideari indibidualki eragiten dioten erabakien kopia ziurtatua eskatzeko.
 - Bazkideak eskubidea izango du kooperatibari dagokionez bazkideak berak duen egoera ekonomikoaren berri jasotzeko, hilabeteko epean gehienez ere, eskatzen duenetik zenbatzen hasita.
 - Kontseilu Errektoreari kooperatibaren funtzionamenduaren edo emaitzen edozein alderdiri buruz beharrezkotzat jotzen dituen argibideak edo txostenak idatziz eskatzeko eskubidea. Argibide edo txosten horiek idatzia aurkeztu eta hamabost egun igaro ondoren egiten den lehenengo Batzar Nagusian eman beharko dira.
 - Urteko kontuak eta emaitzak aplikatzeko proposamena jasotzen dituzten dokumentuak eskuragarri izateko egoitza sozialean, deialdiaren epean azter daitezzen, Batzar Nagusian, gai zerrendaren arabera, ekitaldiko kontuei edo edozein proposamen ekonomikori buruz eztabaidatu behar denean.
 - Kontseilu Errektorearen kudeaketa txostena eta, hala badagokio, kanpoko kontu auditoretzaren txostena aztertzeko, egoitza sozialean eta Batzar Nagusiaren deialdiaren epean. Halaber, hala badagokio, Zaintza Batzordearen txostenak bazkideen eskura egon beharko du.
 - Aipatutako dokumentazioari buruzko azalpenak idatziz eskatzeko, gutxienez bost egun lehenago, Batzarraren ekitaldian erantzun daitezzen.

Hiru. Bazkideek ahoz eskatu ahal izango dute Batzar Nagusian, ekitaldiko kontuez edo edozein proposamen ekonomikori buruz erabaki behar bada, horiei buruzko azalpenak edo argibideak, eta, horretarako, kooperatibaren egoitza sozialean bazkideen eskura jarriko dira kontuen berri ematen duten agiriak, deialdiak dirauen bitartean bazkideek aztertu ahal izan ditzaten.

Epe horretan, bazkideek eskubidea izango dute emaitzak aplikatzeko proposamena egoitza sozialean aztertzeko, eta, hala badagokio, baita Kontseilu Errektoreak egindako kudeaketa txostena eta kontuen kanpoko auditoretzaren txostena ere, hala badagokio.



Halaber, Zaintza Batzordearen txostena bazkideen eskura egon beharko da, estatutuen 38. artikulua arabera.

Epe horretan, bazkideek dokumentu ekonomiko horiei buruzko azalpenak eta argibideak eskatu ahal izango dituzte, idatziz eta Batzar Nagusia izan baino bost egun lehenago gutxienez, eta Batzarrean emango zaie erantzuna.

Lau. Bat atalean ezarritako eskubidearen kalterik gabe, gutxienez boto sozialen %10 ordezkatzeko duten bazkideek, edozein unetan, beharrezkotzat jotzen duten informazioa eskatu ahal izango dute idatziz. Kontseilu Errektoreak idatziz eman beharko du eskatutako informazioa, gehienez hogeita hamar eguneko epean.

Bost. Nolanahi ere, Kontseilu Errektoreak kooperatibaren aldagai sozioekonomiko nagusien berri eman beharko die bazkideei edo haiek ordezkatzeko dituzten organoei, gutxienez hiru hilean behin eta egoki ikusten dituen bideak erabiliz.

Sei. Kontseilu Errektoreak informazio eskaera ausarkeriaz edo oztopatzeko asmoz eginga denean edota informazioa emateak kooperatibaren interes legitimoak arriskuan jartzea dakarrenean baino ezin izango du informazioa ukatu. Dena den, ez da halako salbuespenik izango baldin eta ukatzen den informazioa Batzar Nagusian eman beharrekoa bada eta bertaratutako eta ordezkatzeko boto guztien erdiak baino gehiago azaltzen badira eskatutako informazio hori ematearen alde. Beste kasu guztietan ere ez da halako salbuespenik izango hala erabakitzen badu Batzar Nagusiak, eskaera egiten dutenek errekurtsioa jarri ondoren.

Eskatzaileek Kontseilu Errektorearen ukoa inpugnatu ahal izango dute, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 25. eta 51. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Zazpi. Honako berme sistema hau ezartzen da:

- a) Informazioa eskatzen duten bazkideek informazio eskaera oro sinatu beharko dute, behar bezala identifikatuta eta eskaeraren azalpen arrazoitua emanda.
- b) Gutxienez bazkideen %20k izenpetzen badute informazio eskaera, Kontseilu Errektoreak eskaerari ezetza ematea erabakitzeko bi hereneko gehiengo kualifikatua beharko da.
- c) Kontseilu Errektoreak informazioa ukatzeko hartutako erabakia Errekurtsio Batzordean errekurritu ahal izango da, edo, bestela, Batzar Nagusian, erabakia jakinarazi eta hogeit hamar eguneko epean.

Errekurtsioa Errekurtsio Batzordeak ebaziko du hogeita hamar eguneko epean, edo, hala badagokio, egiten den lehenengo Batzar Nagusiak, isilpeko bozketa bidez.

Bi kasuetan, nahitaezkoa izango da interesdunari edo interesdunei alde zuzena aurretik entzutea.

Zortzi. Oro har, bazkideen informaziorako eskubidea errespetatzeko berme hauek ezartzen dira, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak 24. eta 25. artikuluetan ezarritako baldintzetan:

- a) Kontseilu Errektorea da bazkideen informaziorako eskubidea bermatzeko eskumena duen organoa.
- b) Kontseilu Errektoreak informazioa emateari uko egin diezaiotke, arrazoituta, soilik artikuluko honetako Sei atalean aurreikusitako kasuetan eta aipatutako atalean jasotako salbuespenarekin.



- c) Bazkideak Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legean edo beste lege batzuetan eta estatutu hauetan xedatutako mugak baino ez ditu izango lortutako informazioa erabiltzeko.
- d) Kooperatibak bere bazkideekin harremanetan egoteko erabilitako formatu, programa edo lengoaia informatikoei buruzko informazioa eskatu ahal izango da.
- e) Eskatutako informazioa formatu elektronikoan bidali ahal izango da.
- f) Informazioa, berez, eskaeran erabilitako Euskadiko hizkuntza ofizial berean bidali beharko da, baldin eta eskatzaileak berariaz horrela egiteko eskatu badu.

16. ARTIKULUA. BAZKIDEAREN BORONDATEZKO BAJA

- Bat.** Bazkideek edozein unetan hartu ahal izango dute baja beren borondatez kooperatiban; horretarako, aurrez jakinarazi beharko diote Kontseilu Errektoreari, idatziz, gehienez ere hiru hilabete lehenago pertsona fisikoak badira, eta urtebete lehenago pertsona juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak badira, Kontseilu Errektoreak ezinbesteko arrazoiak edo arrazoi justifikatuak daudela irizten dionean izan ezik.
- Aurreko atalean ezarritakoaren kalterik gabe, bazkide titularrak sozietatean jarraitu beharko du, eta kategoria horri eutsi, lanean hasi eta urtebetera arte.
- Bi.** Aurreabisurako epea ez betetzea eta berariaz eskatutako gutxienerako iraupen epeak errespetatzen ez dituzten bajak justifikatu gabeko bajatzat hartuko dira, kooperatibako Kontseilu Errektoreak, kasuaren zer-nolakoei erreparatuta, kontrakoa erabaki ezean; horrek ez du esan nahi, ordea, bazkideari kooperatiban eman beharreko gutxienerako denbora emateko konpromisoa betetzeko eskatuko ez zaionik (estatutu hauetan arautzen da konpromiso hori) eta, nolana ere, baja eskatzen duen egunetik kanpaina amaitu arte bertan egon beharko ez denik, kooperatibaren zirkunstantziak edo beharrek hala eskatzen dutenean. Halaber, kooperatibako jarduerak eta zerbitzuak eta bere gain hartutako konpromisoak bete beharko ditu, bete beharreko baldintzetan eta kalte-galeren indemnizazioa emanda.
- Hiru.** Kontseilu Errektorearen eskumena izango da baja justifikatutzat edo justifikatu gabekotzat jotzea, eta gehienez ere hiru hilabete epean formalizatu beharko du, artikulua honen Bat atalean aipatzen den aurreabisua jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Kalifikazioa idatziz jakinaraziko zaio bazkide interesdunari. Epe hori igarota, Kontseilu Errektoreak ez badu jakinarazi, baja justifikatutzat joko da.
- Lau.** Justifikatu gabeko borondatezko bajatzat hartuko dira:
- a) Bat atalean aurreikusitakoa ez betetzea, bai eta berariaz hitzartutako gutxienerako iraupena errespetatzen ez duten bajak ere, salbu eta Kontseilu Errektoreak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontrakoa erabakitzen duenean. Nolanahi ere, bazkideari hartutako konpromisoak betetzeko eta kalte-galerak ordaintzeko eska dakioko.
 - b) Bazkideak kooperatibako jarduerekin lehian sartzen diren jarduerak egin behar dituztenean.
 - c) Kooperatibarekiko betebeharrak sozial eta ekonomikoak egunean ez dituztenean.
 - d) Pertsona diziplina espediente batean sartuta dagoenean.



- Bost.** Justifikatutako borondatezko bajatzat hartuko dira:
- a) Kooperatibaren bategitearen edo zatiketaren, klase aldaketaren, xede sozialaren funtsezko aldaketaren edo kapitalerako nahitaezko ekarpen berrien eskakizunaren kasuetan, dagokion erabakiaren aurka bozkatu duen bazkidearena, edo, erabakia hartu zen Batzar Nagusira joan ez arren, hamar eguneko epean erabaki horrekin ados ez dagoela adierazten duenarena. Bategitearen edo eraldaketaren kasuan, epea berrogei egunekoa izango da, bategitearen edo eraldaketaren erabakiaren azken iragarkia argitaratzen denetik zenbatzen hasita.
 - b) Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 89.3 artikuluan xedatutakotik eratortzen direnak, kooperatiba beste sozietate mota bat bihurtuz gero.
 - c) Aurreko Lau atalean jaso ez diren borondatezko gainerako baja guztiak.

17. ARTIKULUA. BAZKIDEAREN NAHITAEZKO BAJA

- Bat.** Nahitaezko baja hartu beharko dute Euskadiko Kooperatiben Legearen edo estatutu sozial hauen arabera bazkide izateko bete behar diren betekizunak galtzen dituzten bazkideek. Edonola ere, bazkideei nahitaezko baja emateko arrazoiak izango dira:
- Bazkide izateko eskatzen diren lege baldintzak galtzea.
 - Sozietate loturarako hitzartutako aldia amaitzea.
 - Kapital sozialera egin beharreko nahitaezko ekarpenari lotutako betebeharrak ez betetzea, izan hasierakoa edo izan Batzar Nagusiak onartutako nahitaezko ekarpen berri bat.
 - Legez ezarritako adinean erretiroa hartzea –soilik lan bazkideentzat– edo ekoizpen jarduera uztea –bazkide erabiltzaileentzat–, bazkide modalitatea aldatzea eskatu eta onartzen denean izan ezik.
 - Baliaezintasun iraunkor osoa –soilik lan bazkideentzat–.
 - Baliaezintasun iraunkor absolutua –soilik lan bazkideentzat–.
 - Kanporatzea, eta
 - Heriotza.
 - Nortasun juridikoa azkentzea, hala badagokio.
- Bi.** Nahitaezko baja Kontseilu Errektoreak erabakiko du, interesdunari entzun ondoren, ofizioz, edo beste bazkideren batek edo eragindako pertsonak berak eskatuz gero.
- Hiru.** Kontseilu Errektorearen erabakia betearaztekoa izango da Errekurtsu Batzordearen berrespena –edo, halakorik ezean, Batzar Nagusiarena– jakinarazten denetik edo errekurtsua jartzeko epea amaitzen denetik. Erabakia betearaztekoa ez den bitartean, bazkideak Batzar Nagusian boto eskubidea izaten jarraituko du.
- Lau.** Nahitaezko baja justifikatutzat joko da bazkide izateko baldintzak galdu izanaren arrazoia ez bada bazkideak kooperatibarekiko zituen betebeharrak bete nahi ez izatea edo nahitaezko bajarekin bidegabeko onurak eskuratu nahi izatea.
- Bost.** Bazkideren bat ez badago ados bere borondatezko bajaren nahiz nahitaezko bajaren kalifikazio edo ondorioei buruz Kontseilu Errektoreak erabakitakoarekin,



errekurtsua jartzeko aukera izango du. Halako kasuetan, estatutu hauetako Bi eta Lau ataletan ezarritakoa aplikatuko da.

Sei. Ekonomia, teknika, antolaketa, ekoizpen edo ezinbesteko egoera larriak direla-eta, Kooperatibaren bideragarritasunari eusteko beharrezkoa bada lanpostuen edo kolektibo edo talde profesional jakin batzuen kopuru orokorra behin betiko murriztea, Kontseilu Errektorearen eskumena izango da Kooperatiban baja eman behar duten bazkide langileen kopurua eta identitatea zehaztea.

Kasu horietan, baja nahitaezko baja justifikatuztat joko da, eta lanik gabe geratzen diren bazkideek eskubidea izango dute beren kapital sozialerako borondatezko ekarpenak berehala bueltan jasotzeko eta nahitaezko ekarpenak gehienez ere bi urteko denbora tartean bueltan jasotzeko, hilean behingo epeetan. Horrez gain, bajaren ondorengo bi urteetan berriz lanean hasteko lehentasunezko eskubidea izango dute, baldin eta betetzen zuten lanpostuaren antzeko edukia duten lanpostu berriak sortzen badira. Hala ere, kooperatibak baliabide ekonomiko objektibagarriak dituenen, indarreko ekitaldi ekonomikoan itzuli beharko ditu nahitaezko ekarpenak.

Lanik gabe geratu diren bazkideak Estatutu Sozialen 42.Bost.b) artikuluan xedatutako ekarpenen titularrak badira eta kooperatibak horiek berehala itzultzea erabakitzen ez badu, kooperatiban jarraitzen duten bazkideek berehala eskuratu beharko dituzte ekarpen horiek, Batzar Nagusiak erabakitako eran.

18. ARTIKULUA. HIRUGARRENEKIKO ERAGIKETAK

Bat. Kooperatibak merkaturatze jarduera eta jarduera horrekin lotura duten jarduerak egin ahal izango ditu, baita kontsumitzailearengana zuzenean iritsi ere, kooperatibaren edo haren bazkideen ustiatetik ez datozen nekazaritzako eta basogintzako produktuekin, honako kasu hauetan:

- a) Ekitaldi ekonomiko bakoitzean, ehuneko bosteraingo, kooperatibak bazkide ez diren hirugarren pertsonen nekazaritzako eta basogintzako produktuak erabiltzen dituen jarduera bakoitzerako portzentaje hori berezita kuantifikatuta.
- b) Ekitaldi ekonomiko bakoitzeko gehieneko ehuneko berrogeita bederatzi izatera irits daiteke.
- c) Kooperatibari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik kooperatibak aurreko mugak gainditu ditzakeenean, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 5. artikuluan aurreikusitako baimena lortu duelako. Horretarako, kooperatibak baimena eskatuko dio lan arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari, eta onartuztat joko da baldin eta eskaera aurkeztu eta hilabeteko epean ez bada berariaz ebatzen.

Bi. Kooperatibak (jarduera hornitzailea izanez gero) produktuak edo zerbitzuak laga ahal izango dizkie bazkide ez diren hirugarren pertsoneri, aurreko ataleko a) eta b) azpiatalen mugen barruan eta baliokideak diren kasuetan; nolahi ere, jarduera kooperatiboaren gerakin arrunten kasuan hori egin ahal izango du.



III. KAPITULUA. DIZIPLINA SOZIALEKO ARAUAK ETA BARNE ANTOLAKETAKO OINARRIZKO ELEMENTUAK.

19. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ARAU HAUSTE MOTAK

Bat. Bazkideek egindako arau hauste sozialak oso astunak, astunak eta arinak izan daitezke, garrantziaren, norainokoaren eta maleziaren arabera.

Bi. Arau hauste sozial oso astunak dira:

- a) Lehia eragiketak, eta erakundearen interes komertzialei zuzenean edo zeharka kalte egiten dien edozein jarduera; kapitalerako ekarpenetan iruzur egitea; datu garrantzitsuak ezkutatzea; eta Kontseilu Errektoreko kideei eta sozietatearen ordezkariari begirunerik eza adieraztea, kooperatibaren interes materialei edo prestigio sozialari kalte egiten badiete.
- b) Dokumentuak, sinadurak, zigiluak, markak edo antzeko datuak faltsutzea, horiek garrantzitsuak badira kooperatibak bazkideekin edo hirugarrenekin dituen harremanetarako.
- c) Kooperatibaren interesei kalte larria egiten dieten ekintzak edo jarduerak egitea, eta kooperatibaren sekretuak edo dokumentuak baimenik gabe ezagutaraztea edo zabaltzea.
- d) Kontseilu Errektorearen edo bertako edozein kideren funtzioak usurpatzea.
- e) Harreman komertzialak ezartzea kooperatibaren berezko bezeroekin, edo kanpokoekin, kooperatibaren zuzeneko lehiakideak izan edo ez, Kontseilu Errektorearen alde aurreko berariazko baimenik gabe.
- f) Bazkide izaeraz baliatzea espekulazio jarduerak edo legearen aurkakoak egiteko.
- g) Estatutu sozial hauetako 13. artikuluan jasotako betebeharrak larriki edo behin eta berriz ez betetzea, eta egitez eta/edo hitzez bazkideak kooperatibaren prestigioa edo ondarea, baita, oro har, eratu zenean kooperatibak zehaztutako xede soziala ere, kaltetzen duen ekintza errepikatzea.
- h) Beste bazkide batzuk edo kooperatibako langileak, halakorik balego, hitzez edo egitez gaizki tratatzea, organo sozialean bileretan edo lanak, jarduerak edo xede sozialaren garapenerako beharrezkoak diren operazioak egitean.
- i) Kontseilu Errektoreak hornidurarako ezarritako arauak ez betetzea: etiketak, kalitatea, prezioak, ontziratzea, logistika, animalia osasuna eta/edo elikagaien segurtasuna, modu batera edo bestera sozietatearentzako erantzukizuna eragiten badute, izan ekonomikoa edo izan ospari dagokiona.
- j) Estatutu hauetan xedatutako betebeharrak ekonomikoak betetzen atzeratzea, salbu eta Kontseilu Errektoreak kausa justifikatu bat dagoela irizten dionean, horiek betetzeko epea 9 hilabete baino gehiago atzeratu bada, eta bereziki sozietateak edo bazkide guztiek edo batzuek konprometitutako inbertsioak tartean daudenean.
- k) Kooperatibaren eskutik edo bazkideen ustiategietan ezarritako kalitate arauen betebeharrak eta arauak urratzea, kooperatibak jarduera komertziala garatzean bezeroek eta merkatuek hala eskatuta.



- l) Arau hauste astunak behin eta berriz egitea, urtebetetik beherako epean.
- m) Kode etikoa ez errespetatzea edo barne araudiari loturiko arau hausteak egitea.

Hiru. Arau hauste astunak dira:

- a) Behar bezala deitutako Batzar Nagusietara justifikatu gabe ez joatea, baldin eta bazkidea hutsegite arinagatik bi aldiz zehatua izan bada, azken hiru urteetan organo sozial horren bileretara ez joateagatik.
- b) Karguren baterako aukeratua izan eta kargua ez onartzea edo uko egitea, Kontseilu Errektoreak justifikatutako arrazoiren bat dagoela irizten dionean izan ezik, edo kargu sozialak arduraz ez betetzea, kargu horietarako aukeratua izan ondoren.
- c) Estatutu hauetan xedatutako betebeharrak ekonomikoak betetzen atzeratzea, betetze datatik gutxienez sei hilabete igaro bada.
- d) Dokumentuak, gutunak eta datuak baimenik gabe atxikitzea, edo behar ez bezala aplikatzea, bideratzea edo erabiltzea.
- e) Dolozko egite edo ez-egiteak, bazkide bakoitzari agindutako lan eta erantzukizunen martxa egokia larriki oztopatzen dutenak.
- f) Kontseilu Errektoreak hornidurarako ezarritako arauak ez betetzea: etiketak, kalitatea, prezioak, ontziratzea, logistika, animalia osasuna eta/edo elikagaien segurtasuna, ez badira oso larritzat jotzen.
- g) Arau hauste arinak behin eta berriz egitea, urtebetetik beherako epean.

Lau. Arau hauste arinak dira:

- a) Batzar Nagusiaren bileretara arrazoi justifikaturik gabe ez joatea, bazkideari behar bezala deitu bazaio.
- b) b) Kooperatibako idazkariari helbide sozial edo ohikoaren aldaketa ez jakinaraztea, aldaketa gertatu eta bi hilabeteko epean.
- c) c) Estatutu etako, erregelamenduetako eta funtzionamendu arauetako aginduak gutxienez behin ez betetzea, ezin saihestuzko ezjakintasunagatik.
- d) d) Bazkide bakoitzari agindutako lan eta erantzukizunen martxa egokia apur bat oztopatzen duten dolozko egite edo ez-egiteak.
- e) e) Zabarkeria edo arduragabekeria barkaezina, kooperatibaren interesei kalterik eragiten ez badie.
- f) f) Estatutu hauetan xedatutako betebeharrak ekonomikoak betetzen atzeratzea, betetze datatik gutxienez hiru hilabete igaro bada.

Bost. Lan bazkideen lan arloko arau hausteak izango dira lana egitetik eratorritako edo horrekin zerikusia duten egite edo ez-egite guztiak. Horien arauak Batzar Nagusiak berariaz hartutako erabakien bidez edo Barne Araudian onartuz arautuko dira.

20. ARTIKULUA. ARAU HAUSTE SOZIALENGATIKO ZEHAPENAK

Bat. Arau hauste arinengatik:

- Idatzizko kargu hartzea.
- Boto eskubidea etetea, gehienez ere urtebetez.
- Une bakoitzean indarrean den gutxienerako nahitaezko ekarpenaren zenbatekoaren %10erainoko diru zehapena, gutxienez 2.500 eurokoa.



- Bi.** Arau hauste astunengatik:
- Bat ataleko aurreko guztiak.
 - Kooperatibako kide anitzeko organo sozialetako kide hautatua izateko desgaiuntza bi urtez.
 - Ohartarazpen idatzia, zeina, Kontseilu Errektoreko kideen iritziz, publiko egin ahal izango baita.
 - Boto eskubidea etetea, bi urtera arteko epe batez.
 - Lan bazkideen kasuan, sei laneguneko aurrerakinen baliokidea den diru zehapena.
 - Une bakoitzean indarrean den gutxieneko nahitaezko ekarpenaren zenbatekoaren %50erainoko diru zehapena, gutxienez 5.000 eurokoa.
- Hiru.** Arau hauste oso astunengatik:
- Bat eta Bi ataletako guztiak.
 - Eskubide sozial guztiak edo batzuk etetea, gehienez ere hiru urtez.
 - Kanporatzea.
 - Une bakoitzean indarrean den gutxieneko nahitaezko ekarpenaren zenbatekoaren %100erainoko diru zehapena, gutxienez 10.000 eurokoa.

21. ARTIKULUA. ZIGORTZEKO PROZEDURA

- Bat.** Bazkideak arau hauste sozialengatik zehatzeko, dagokion espedientea hasiko da beti, arau hauen arabera:
- a) Arau hauste arinetan, Kontseilu Errektoreak, arau haustetzat har litezkeen egitate edo ez-egite batzuen berri duenean, bere kideen artean instruktore bat izendatuko du, eta pertsona horrek, hala badagokio, eta erruztatutako bazkideari nahitaez entzun ondoren, kargu orri bat egingo du. Bazkide horri hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa eta dagokion zehapen proposamena idatziz jakinaraziko zaizkio. Bazkideak, halaber, deskargu orri bat egin ahal izango du, instruktorearen jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean. Agiri hori idatziz aurkeztu beharko zaio Kontseilu Errektoreari. Une horretatik aurrera, Kontseilu Errektoreak, gehienez ere hilabeteko epean, hutsegitearen kalifikazioari eta behin betiko zehapenari buruzko erabakia hartu beharko du, baina, nolana ere, eta nahitaez, alde aurretik entzunaldia emango dio interesdunari, eta, ondoren, interesduna ez bada agertzen aurretiazko entzunaldira Kontseilu Errektoreak horretarako zitazioa egiten dionean, orduan erabakiko du hutsegitearen kalifikazioari eta behin betiko zehapenari buruz kooperatibaren azken instantzian; horrek ez du esan nahi, ordea, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 52. artikuluan ezarritako tramite prozesalaren bidez inpugnatu ahal izango ez denik.
 - b) Arau hauste astun edo oso astunetan, prozedura arau hauste arinetarako aurreikusitakoaren berdin-berdina da, baina kasu horretan Kontseilu Errektorearen zehapen erabakia errekurritu egin daiteke eta ez du kooperatibaren barneko bidea agortzen. Bazkideak Errekurtso Batzordearen aurrean errekurri dezake Kontseilu Errektorearen zehapen erabakia, edo, halakorik ez balego, Batzar Nagusiaren aurrean, edo zehazpena jakinarazi zen egunetik zenbatzen hasi eta hogeita hamar eguneko epean. Errekurtso Batzordearen erabakia bazkide interesdunari



entzun ondoren hartuko da, hogeita hamar eguneko epean, edo bestela Batzar Nagusiaren lehen bileran, kooperatibaren barne bidea agortuz. Horrek ez du esan nahi, ordea, bazkideak Batzar Nagusiaren erabakiaren aurka inpugnatu ahal izango ez duenik, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko Legearen 41.5 artikuluan xedatutako tramite prozesalaren bidez.

Bi. Arau hauste arinak hilabeteren buruan preskribatuko dira, astunak bi hilabeteren buruan eta oso astunak hiru hilabetera.

Arau hausteen preskripzio epea arau haustea egin den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Arau hauste jarraituen edo iraunkorren kasuan, jokabide arau hauslea amaitzen denetik hasiko da epea zenbatzen. Preskripzioa eten egingo da, interesduna jakitun delarik, zehapen prozedura bat hasten bada, eta preskripzio epea berriro hasiko da zehapen prozedura, ustezko erantzuleari egotzi ezin zaion kausa bategatik, lau hilabete baino gehiagoan ebazpenik eman eta jakinarazi gabe geldirik badago.

Hiru. Zehapen oro betearazi egin behar da, espedientatutako bazkideari dagokion errekurtsua aurkezteko epea errekurtsorik aurkeztu gabe amaitu eta hurrengo egunetik hasita, edo dagokion erabaki apelaezina hartu eta hurrengo egunetik hasita.

Lau. Kanporatze kasuan izan ezik, Kontseilu Errektoreak, interesdunek eskatuta, ezarritako zehapenetatik bete ez den zatia ezereztu dezake.

Bost. Elikagaien kalitatea eta segurtasuna dela-eta, tartean premiazko edo presazko arrazoiak daudenean, edo sozietateari kalte ekonomikoak edo ospe arlokoak ez eragiteko, zuzendaritzak edo gerentziak, halakorik badago, edo, bestela, lehendakaritzak, ahalmen eta autonomia osoa izango du arau haustearen ondorioak eteteko edo arintzeko beharrezkoak diren kautelazko neurriak zuzenean hartu eta betearazteko, harik eta Kontseilu Errektoreari horren berri eman arte, zehapen espediente ireki dezan. Lehendakaritzak albait arinen egin beharko du horretarako deialdia.

Kautelazko neurriak hartu badira, Kontseilu Errektoreak horiek luzatu edo baliogabetu egingo ditu zehapen prozedura hasita edo ez hasita erabakitzen den bileran.

Horretarako, kautelazko edozein neurri inplementatzea erabakitzen den unean bertan, Zuzendaritzak Lehendakaritzari jakinarazi beharko dio, Kontseilu Errektorea lehenbailehen biltzeko deialdia egin dezan.

22. ARTIKULUA. KANPORATZEA

Bat. Kontseilu Errektoreak bazkide bat kanporatzea erabaki dezake soilik estatutuetan jasotako falta oso astunagatik, horretarako hasitako espedientearen bidez eta interesdunari aurrez entzun ondoren.

Bi. Kanporatzeko erabakiaren aurka, bazkideak errekurtsua aurkeztu ahal izango dio Errekurtsu Batzordeari edo, halakorik ezean, Batzar Nagusiari, erabakia jakinarazi eta hogeita hamar eguneko epean.

Errekurtsua Errekurtsu Batzordearen aurrean ebatzi beharko da, interesdunari entzunda, errekurtsua aurkeztu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean. Epe hori igarotzen bada ebatzi eta jakinarazi gabe, errekurtsua aintzat hartu dela ulertuko da. Batzar Nagusian jarritako errekurtsua, deitzen den lehen batzarraren gai zerrendako puntu gisa sartu beharko da, eta isilpeko bozketa bidez ebatziko da, interesdunari berari entzun ondoren.



- Hiru.** Kanporatzeko erabakia betearaztekoa izango da Errekurtso Batzordearen edo, halakorik ezean, Batzar Nagusiaren berrespenaren jakinarazpena jasotzen denetik edo errekurtoa jartzeko epea amaitzen denetik aurrera.
- Lau.** Errekurtso Batzordeak edo, halakorik ezean, Batzar Nagusiak kanporatzeko erabakia berretsi ondoren, bi hilabeteko epean inpugnatu ahal izango da, erabakia jakinarazten denetik zenbatzen hasita, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 41.5 artikuluan aipatzen den bide prozesaletik.
- Bost.** Era berean, Batzar Nagusiak aurreikusitako eta onartutako arau hauste soziolaboral oso astunengatik kanporatu ahal izango dira lan bazkideak, berariazko akordioen bidez edo Barne Araudian ezarritako akordioen bidez, aldeztatik egindako zehapen espediente baten bidez eta bazkide interesdunari entzun ondoren.
- Kontseilu Errektoreak bazkideari jakinaraziko dio erabakia, idatziz, erabakia hartu eta hurrengo hamabost egunen barruan.
- Kanporatzeko erabakiaren aurka, lan bazkideak errekurtoa aurkeztu ahal izango dio Errekurtso Batzordeari edo, halakorik ezean, Batzar Nagusiari, erabakia jakinarazi eta hogeita hamar eguneko epean.
- Errekurtso Batzordearen aurrean aurkeztutako errekurtoa gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatzi beharko da, errekurtoa aurkeztzen denetik zenbatzen hasita, lan bazkide interesdunari entzun ondoren. Epe hori igarotzen bada ebatzi eta jakinarazi gabe, errekurtoa aintzat hartu dela ulertuko da. Errekurtso Batzorderik ez badago, Batzar Nagusiak ebatziko du errekurtoa, egiten duen lehenengo bilkuran.
- Lan bazkideari lan jarduna eten ahal izango zaio, Kontseilu Errektorearen kanporatze erabakia jakinarazten zaion egunetik aurrera, eta lan aurrerakinerako eskubideari eutsiko dio behin-behinean, lanean ariko balitz bezala.
- Errekurtso Batzordeak edo, halakorik ezean, Batzar Nagusiak kanporatze erabakia berretsi ondoren, erabakia inpugnatu ahal izango da, hogeita hamar egun balioduneko epean, Errekurtso Batzordeak edo, halakorik ezean, Batzar Nagusiak kanporatze erabakia –kaleratze gutunaren baliokidea– lan bazkideari jakinarazten dionetik zenbatzen hasita, lan arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 103. artikuluan eta hurrengoetan araututako bide prozesaletik; lege horren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Nolanahi ere, lan bazkideak, Lan arloko Jurisdikziora jo aurretik, kooperatibaren barruko bidea agortu beharko du, hala arautzen baitute Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak, lege horren garapen arauak, estatutu hauek eta kooperatibaren barruko arauak.

23. ARTIKULUA. FUNTZIONAMENDUAREN BARNE ANTOLAKETARI BURUZKO OINARRIZKO ELEMENTUAK

- a) Kontseilu Errektoreari dagokio lana antolatzea eta diziiplina ezartzea.
- b) Kooperatibak lan bazkideak baliatuko ditu lehentasunez, eta, besteren konturako langileak kontratatu behar baditu, horien zenbatekoak ez ditu legezko mugak gaindituko.



-
- c) Lan bazkide guztiak sailkatu egingo dira beren lan aurrerakinak jasotzeko, betetzen duten lanpostuaren eta bazkide langile izaerarekin kooperatibari ematen dioten benetako zerbitzuaren arabera.
 - d) Lan aurrerakinak Kooperatibaren emaitza ekonomikoen kontura egindako aldizkako ordainketak dira, eta, beraz, ez dute soldata izaerarik. Ondorioz, aurrerakinen zenbatekoa emaitza ekonomiko horien arabera izango da. Lan bazkideen ordainsariekin (lan aurrerakinak) ezin izango dute gaintu kooperatiba honi aplikatu beharreko lan hitzarmenak lanbide jardueraren eta kategoriaren arabera ezartzen dituen ordainsarien ehuneko ehun eta berrogeita hamar.
 - e) Kontseilu Errektoreak urtero finkatuko du bere lan bazkideen lan aurrerakina, gutxieneko indizearen ordu arruntari dagokiona. Behin hori kalkulatu eta gero, horren gainean gainerako indizeei dagozkien lan aurrerakinak zehaztuko dira.
 - f) Pertsona fisikoei dagokien fiskalitatea lan bazkideen kontura izango da, eta kooperatibak ezin izango du inola ere subrogatu.
 - g) Bazkide langileei, finkoei zein probaldian daudenei Gizarte Segurantzaren estaldura emateko, kooperatibak arlo horretan indarrean dagoen legeriaren arabera jardungo du, eta Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorriari atxikiko zaio.
 - h) Batzar Nagusiak onartuko duen barne araudi kooperatiboaren eta gainerako funtzionamendu arauen arabera antolatuko dira lan bazkideak kooperatibaren barruan, edo Kontseilu Errektoreak onartuko ditu kooperatibaren egituraren organigrama orokorrak. Horretarako, lanpostu bakoitzaren funtzioak eta harremanak egoki deskribatu beharko dira.
 - i) Lan bazkideen lan erregimenaren oinarritzko esparruari dagozkion gaiak, hala nola lanaren antolaketa, lanaldiak, asteko atsedena, jaiegunak, oporrak, baimenak, lanbide sailkapena, mugigarritasun funtzionala eta geografikoa, eszedentziak edo lan harreman kooperatiboa eteteko edo amaitzeko beste edozein arrazoi, eta, oro har, bazkide langileak bere lana betetzetik eratorritako eskubide eta betebeharrekin zuzenean lotutako beste edozein gai, Barne Araudian arautuko dira, eta, halakorik ezean, Batzar Nagusiaren eskutik, betiere estatutu hauetan xedatutakoa errespetatuz.



IV. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA

24. ARTIKULUA. ORGANO SOZIALAK

- Bat.** Kooperatibaren organo sozialak honako hauek dira, non bakoitza bere eskumenen titularra izango den eskusiboki:
- Batzar Nagusia.
 - Kontseilu Errektorea.
 - Zaintza Batzordea
 - Kontseilu Soziala
 - Errekurtso Batzordea
- Bi.** Kooperatibaren kudeaketa arruntari dagozkion gaiak Kontseilu Errektorearen eskumena dira.
- Hiru.** Kooperatibak bere operatibitaterako eta bere garapenerako komenigarri ikusten dituen nahi beste organo sortu ahal izango ditu, kasu bakoitzean erabakitzen diren ahalmenekin. Ahalmen horiek ezin dira izan kooperatibak beharrezkoak dituen organoei Legeak berariaz esleitzen dizkienak.
- Lau.** Kooperatibako organoek Legean xedatutakoa bete beharko dute. Estatutu Sozial hauek eta Barne Araudiak –halakorik balego– osatuko dute Legea, edo kooperatibaren funtzionamendua behar bezala antolatzeko onartzen den baliozko edozein erabakik.
- Bost.** Kooperatiba saiatuko da bere organoetan bazkideen ordezkaritza orekatua izan dadin sexuari dagokionez, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako neurriak ezartzea sustatuko du, bereziki bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bateragarri egitera bideratutakoak.

25. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIA

- Bat.** Batzar Nagusia bazkideen bilkura da, bere eskumenerako gaien gainean eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko erakunde.
- Batzar Nagusiaren erabakiek hartzen diren egunetik aurrera sortzen dituzte ondorioak, eta bazkide guztiak behartzen dituzte.
- Bi.** Erabaki hauek hartzea Batzar Nagusiari dagokio eskusiboki:
- a) Kontseilariak, Zaintza Batzordeko kideak eta likidatzaileak izendatzea eta kargugabetzea, isilpeko bozketa bidez, eta baita, hala badagokio, Errekurtso Batzordea eta Kontseilu Soziala osatzen dutenak izendatzea eta kargugabetzea ere. Eta horien aurkako erantzukizun akzioa gauzatzea.
 - b) Kontu ikuskatzaileak izendatzea eta, bidezko arrazoia dagoenean eta soilik kasu horretan, kargugabetzea.
 - c) Kudeaketa soziala aztertzea, urteko kontuak onartzea eta soberakinak banatzea edo galerak egozteak.
 - d) Nahitaezko ekarpen berriak, kapitalerako ekarpenen interesak eta sarrerako nahiz aldizkako kuotak zenbatekoak izango diren zehaztea.
 - e) Obligazioen, partaidetza tituluen eta partaidetza berezien jaulkipena edo Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak 68. artikuluan



xedatutako beste finantzaketa modu batzuk erabakitzea, lege horren 62.2 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

- f) Errekurtso Batzordearen eskumenekoak diren errekurtsoak ebaztea, kooperatibak organo hori sortu ez badu.
- g) Estatutu Sozialak aldatzea.
- h) Bigarren edo maila handiagoko kooperatibak, kooperatiba taldeak eta antzeko beste entitate batzuk sortzea, baita horietara atxikitzea edo horietatik bereiztea ere.
- i) Sozietatearen bategitea, zatiketa, eraldaketa eta desegitea.
- j) Kooperatibaren ekonomiaren, antolamenduaren edo funtzioen egituraren funtsezko aldaketa dakarten erabakiak onartzea. Horien artean:
 - Kooperatibaren aktibo eta pasibo guztiak besterentzea.
 - Xede soziala aldatzea, ez badira errespetatzen eta zaintzen kooperatiba sortu zeneko xedeak eta jarduerak.
 - Kooperatibaren klase aldaketa.
- k) Kooperatibaren Barne Araudia onartzea edo aldatzea.
- l) Legeak ezartzen dituen gainerako erabakiak.

Hiru. Batzar Nagusiak kooperatibarentzat interesgarriak diren gai guztiez eztabaidatu ahal izango du, eta beste organo sozial baten eskumen eskusibokoak ez diren gaietan baino ezingo ditu nahitaezko erabakiak hartu.

Lau. Artikulu honen edo lege arauaren arabera Batzar Nagusiari dagozkion eskumenak ezin dira beste inoren esku utzi, artikulu honetako bigarren puntuko h) atalean kooperatiba integrazioarako prozesuetarako xedatutakoa izan ezik.

26. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Bat. Batzar Nagusia Ohikoa edo Ezohikoa izan daiteke, eta Kontseilu Errektoreak deituko du.

Bi. Ohiko Batzar Nagusia nahitaez bilduko da sozietatearen ekitaldia itxi eta hurrengo lehen sei hilabeteen barruan. Epe hori igaro eta ez bada ez Batzarrik ez deialdirik egin, edozein bazkidek, notario bidez edo bestelako edozein bide sinesgarri erabiliz, Kontseilu Errektoreari errekerimendua zuzendu ahal izango dio Batzarrerako deia egin dezan. Kontseilu Errektoreak errekerimendua jaso eta hortik aurrerako hamabost eguneko epean deialdirik egiten ez badu, edozein bazkidek Batzarrerako deia egin dezala eskatu ahal izango dio sozietatearen egoitza dagoen lekuko Merkataritzako Epaitegiari, zeinak deialdia egin eta Batzarreko burua nor izango den erabakiko baitu. Batzar Nagusi hori, epez kanpo deitutakoa izanda ere, ohikoa izango da.

Hiru. Ezohiko Batzar Nagusia edozein unetan elkartuko da, Kontseilu Errektorearen beraren ekimenez, Zaintza Batzordeak eskatuta, halakorik badago, edo gutxienez boto guztien ehuneko hogeitaz ordezkatzen duten bazkideek eskatuta, Kontseilu Errektoreari errekerimendu frogagarria eginez, eztabaidatu beharreko gai eta proposamenen gai zerrendarekin. Eskaera jaso eta hurrengo hogeita hamar egunetan Batzar Nagusirako deialdia egiten ez bada, deialdia epai bidez egiteko eskatu ahal izango da, aurreko zenbakian aurreikusitakoaren arabera.

Lau. Boto sozialen ehuneko hamar baino gehiago ordezkatzen duten bazkideek, deialdia egin eta hurrengo bost egunetan Kontseilu Errektoreari zuzendutako



idazki baten bidez, gai bat edo gehiago gai zerrendan sartzeko eskatu ahal izango dute. Kontseilu Errektoreak gai horiek gai zerrendan sartu beharko ditu, eta gai zerrenda berria legeak eskatzen duen publikitatearekin argitaratu beharko du, Batzarra egin baino lau egun lehenago gutxienez, eta Batzarraren bilera eguna ezin izango da inola ere atzeratu.

Bost. Batzar Nagusia biltzeko deialdia, betiere, sozietatearen egoitzan eta kooperatibak bere jarduera garatzen duen zentro guztietan jarriko da jendaurrean.

Kooperatibak bostehun bazkide baino gehiago baditu, egoitza sozialaren lurralde historikoan zirkulazio handia duen egunkari batean ere –idatzizkoa edo digitala– iragarriko da deialdia.

Kooperatibak bere webgunean argitaratutako iragarki baten bidez jakinaraziko du deialdia, baldin eta webgune hori sortzea Batzar Nagusiak erabaki badu eta sortzeko erabakia Euskadiko Kooperatiben Erregistroan kooperatibarentzat irekitako orrian jasota badago. Kasu horretan, ez da aplikatzekoa izango aurreko paragrafoan ezarritako betebeharra.

Alerta sistema bat ezartzen da publikitaterako mekanismo osagarri gisa, ez derrigorrezkoa, kooperatibaren webgunean, kooperatibako bazkideen “gune pribatuan” edo “intranetean”; gune horretarako sarbidea bakarra eta eskusiboa izango da bazkide bakoitzarentzat, eta, horretarako, bazkide bakoitzak bere sarbide gakoa izango du.

Sei. Deialdia gutxienez hamar egun eta gehienez hirurogei egun lehenago argitaratuko da.

Zazpi. Deialdian zehaztu beharko da, gutxienez, zein egunetan, zein ordutan eta non izango den bilera, lehenengo eta bigarren deialdian, eta bien artean ordu erdiko tartea utzi beharko da gutxienez; argi eta zehatz jaso beharko da, baita ere, gai zerrenda osatzen duten gaiak.

Gainera, deialdiaren iragarkian adieraziko da bazkide guztiek eskubidea dutela gai zerrendako puntuei buruzko dokumentu guztiak sozietatearen egoitzan aztertzeko, eta baita sozietatearen intranetean ere, halakorik balego.

Zortzi. Artikulu honen aurreko ataletan xedatutakoa gorabehera, bilera baliozkoa izango da deialdirik egin beharrik gabe ere, baldin eta, bazkide guztiak bertan edo ordezkaturik egonik, aho batez erabakitzen badute Batzar Nagusi unibertsala eratzea; horretarako, denek onartu eta sinatuko dituzte gai zerrenda eta bertaratutakoen zerrenda, eta ez da beharrezkoa izango bazkide guztiek geroago bertan jarraitzea.

27. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA

Bat. Batzar Nagusia, unibertsala ez bada behintzat, egoitza soziala dagoen herrian egin beharko da, edo Kontseilu Errektoreak erabaki duen beste edozein lekutan, baldin eta hori justifikatzen duen arrazoiren bat badago.

Batzar Nagusiak, osoki edo partzialki, modu telematikoan edo unean-unean teknologiak ahalbidetzen duen antzeko sistemaren baten bidez egin ahal izango dira, baldin eta Kontseilu Errektoreak bere deialdian hala erabakitzen badu, eta aipatutako administrazio organoak aurrez aurrekoa ez den asistentzia gauzatzeko sistema ezartzen badu. Sistema horrek honako hauek bermatuko ditu:

a) Bilerara deituak izango diren guztiek sartzeko aukera izatea.



- b) Bazkidearen nortasuna egiaztatzea.
- c) Boto eskubidea baliatzea eta, aurreikusita dagoenean, botoaren konfidentzialtasuna.
- d) Irudiaren eta soinuaren norabide biko eta aldi bereko komunikazioa egotea, baita ikusmenezko, entzumenezko eta ahosko interakzioa egotea ere.
- e) Hala adierazten duten bazkideek batzarrean aurrez aurre parte hartu ahal izatea.

Bazkideren batek Batzar Nagusian parte hartu nahi badu bertara joan gabe, bitarteko telematikoen bidez edo antzeko beste edozein bitartekoren bidez, Batzarreko idazkariak berariaz jasoko du aktan bazkidearen edo ordezkariaren identitatea eta bere borondatea adierazteko erabilitako bitartekoa, bai eta erabakiak baliozkotasunez hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzak ere.

Bi. Batzar Nagusia baliozkotasunez eratuko da, lehen deialdian, baldin eta bildutako edo ordezkaturako bazkideen botoen gehiengoa bertan edo ordezkaturata badago; eta bigarren deialdian, baldin eta bildutakoak edo ordezkaturakoak bazkideen botoen %10era edo 100 botori iristen badira, eta hirugarren deialdian edozein delarik ere bertan edo ordezkaturata dauden botoen kopurua.

Batzar Nagusirako deialdia egitea erabaki zen datan bazkide zirenek izango dute Batzarrera joateko eskubidea.

Hiru. Beste bazkide batzuek, ezkontideak edo lehen mailara arteko beste senide batek edo jarduteko ahalmen osoa duen legezko tutoreak ordezkatu ahal izango dituzte bazkideak, idatzizko baimen batekin Batzar Nagusi bakoitzeko.

Batzar Unibertsalaren kasuan, aurreikusitako gai zerrenda ere jaso behar da ordezkari gisa parte hartzen dela egiaztatzen den idatzian.

Bazkide bakar batek ere ezin izango ditu bi ordezkari baina gehiago izan, bereaz gain. Ordezkaritza ezeztatu ahal izango da. Ordezkaritza beste norbaiti eman dion pertsona Batzar Nagusira joateak ordezkari ezeztatze indarra izango du.

Lau. Batzar Nagusiko lehendakaria Kontseilu Errektoreko lehendakaria izango da; hori ezin bada izan, lehendakariordea izango da, eta azken hori ere ezin bada izan, Batzarrak hautatutako bazkidea izango da.

Lehendakariari dagokio: eztabaidak gidatzea, bere erantzukizunpean zaintzea desbideratzerik ez gertatzea edo gai zerrendan sartzen ez diren gaiak –Legeak berariaz baimendutakoak izan ezik– ebatzea, Batzarraren ordenari eustea eta legezko formalitateak betetzen direla zaintzea.

Idazkaria Kontseilu Errektoreko idazkaria izango da, edo, bestela, Batzar Nagusiak berariaz aukeratzen duena.

Bost. Deusezak izango dira gai zerrendan jasota ez dauden gai buruzko erabakiak, salbu eta legeak berariaz baimentzen badu erabaki horiek hartzea.

Sei. Kontseilu Errektoreko kideek Batzar Nagusietara joan beharra izango dute, eta, Kontseilu Errektoreak beharrezkotzat jotzen badu, zuzendariak eta teknikariak joan ahal izango dira, sozietatearen gaien martxa onaren gaineko interesa badute, eta baita egokitzat jotzen diren beste pertsona batzuk ere, gai zerrendako puntu batean edo hainbatetan parte hartzeko. Batzar Nagusiak, hala badagokio, beste edozein pertsona egoteko baimena eman ahal izango du.



- Zazpi.** Saioaren akta idazkariak idatziko du, datu hauek adierazita: bileraren eguna eta lekua, deialdia noiz eta zein modutan egin den eta deialdiaren testu osoa, zenbat bazkide bildu diren, pertsonalki edo ordezkaturata egon diren, lehenengo deialdia, bigarrena edo hirugarrena den, eztabaidatutako gaien laburpena, aktan jaso daitezela eskatutako esku hartzeak, hartutako erabakien edukia, bozketen emaitza, eta aktaren onarpena, bilera bukatu ondoren onartzen bada.
- Bazkideren batek edo haren ordezkariak Batzar Nagusian baliabide telematikoen bidez edo antzeko beste edozein bitartekoren bidez parte hartzen badu, idazkariak horren berri emango du aktan, artikulua honen Bat atalean adierazitako eran.
- Bertaratutako zerrenda aktaren hasieran agertuko da, edo eranskin baten bidez erantsiko zaio aktari, idazkariak sinatuta eta lehendakariaren oniritziarekin. Era berean, bazkideen zerrenda hori euskarri informatikoaren bidez osatu ahal izango da, horretarako baldintzak betez.
- Zortzi.** Akta Batzarrak berak onartu ahal izango du, Batzarra egin ondoren, edo, bestela, lehendakariak eta Batzarrean bertan izendatutako bi kidek onartuko dute, idazkariarekin batera sinatuta, hamabost eguneko epean.
- Batzar Nagusira joandako edozein bazkidek eskubidea izango du aktaren edo hartutako erabakien testu osoaren ziurtagiriak eskatzeko. Aktaren edo erabakien testu osoa, gainera, emate datan idazkari denak emango du, lehendakariaren oniritziarekin.
- Bederatzi.** Bozketa isilpekoa izango da lege honetan edo estatutuetan xedatutako kasuetan eta bertaratu diren eta ordezkatuak izan diren bazkideen ehuneko hamarrek hala izan dadila eskatzen duten kasu guztietan. Gainerako kasuetan, lehendakariak erabakiko du. Erabakiek hartu diren momentutik aurrera izango dituzte ondorioak
- Hamar.** Inskribatzekoak diren erabakiak Euskadiko Kooperatiben Erregistroan aurkeztuko dira, akta onartu eta hogeita hamar eguneko epean.

28. ARTIKULUA. BOTO ESKUBIDEA

- Bat.** Bazkide bakoitzak, izan fisikoa izan juridikoa, boto bat izango du, baina bazkide mota bakoitzak honako boto hauek izango ditu:
- Ustiattegietako bazkide titularrak (bazkide erabiltzaileak), oro har, Batzar Nagusiko boto guztien %45eko kuota. Ustiattegietako bazkide titular guztiei (bazkide erabiltzaileak) batera esleitutako boto eskubidea zatitu egingo da Batzarrerako deialdia egiten den egunean ustiattegietako bazkide titular diren bazkideen kopuruaren artean (bazkide erabiltzaileak), ustiattegiko bazkide titular bakoitzari (bazkide erabiltzailea) dagokion boto eskubidea zehazteko. Ustiattegiko bazkide titular bakoitzari (bazkide erabiltzailea) boto bat dagokio.
 - Lan bazkideak, oro har, Batzar Nagusiko boto guztien %30eko kuota. Lan bazkide guztiei batera esleitutako boto eskubidea zatitu egingo da Batzarrerako deialdi egunean dagoen lan bazkideen kopuruaren artean, lan bazkide bakoitzari dagokion boto eskubidea zehazteko. Lan bazkideek boto bana izango dute.
 - Bazkide laguntzaileak, oro har, Batzar Nagusiko boto guztien %15eko kuota. Bazkide laguntzaile guztiei batera esleitutako boto eskubidea zatitu egingo da Batzarrerako deialdi egunean dagoen bazkide laguntzaileen kopuruaren



artean, horietako bakoitzari dagokion boto eskubidea zehazteko. Bazkide laguntzaileek boto bana izango dute.

- d) Bazkide ez-erabiltzaileak, oro har, Batzar Nagusiko boto guztien %5eko kuota. Bazkide ez-erabiltzaile guztiei batera esleitutako boto eskubidea zatitu egingo da Batzar Nagusirako deialdi egunean dagoen bazkide ez-erabiltzaileen kopuruaren artean, bazkide ez-erabiltzaile bakoitzari dagokion boto eskubidea zehazteko. Bazkide ez-erabiltzaile bakoitzak boto bat izango du.

Bazkide ez-erabiltzailerik ez badago, haien botoak ustiattegietako bazkide titularren kolektiboari gehituko zaizkio.

- e) Bazkide ez-aktiboak, oro har, Batzar Nagusiko boto guztien %4ko kuota. Bazkide ez-aktibo guztiei batera esleitutako boto eskubidea zatitu egingo da Batzarrerako deialdi egunean dagoen bazkide ez-aktiboen kopuruaren artean, bazkide ez-aktibo bakoitzari dagokion boto eskubidea zehazteko. Bazkide ez-aktiboek boto bana izango dute.

Bazkide ez-aktiborik ez badago, haien botoak lan bazkideen kolektiboari gehituko zaizkio.

- f) Eszedentzian dauden bazkideak, oro har, Batzar Nagusiko boto guztien %1eko kuota. Eszedentzian dauden bazkideei batera esleitutako boto eskubidea zatitu egingo da Batzarreraren deialdi egunean eszedentzian dauden bazkideen kopuruaren artean, eszedentzian dagoen bazkide bakoitzari dagokion boto eskubidea zehazteko. Eszedentzian dauden bazkideek boto bana izango dute.

Bazkide ez-aktiborik ez badago, haien botoak lan bazkideen kolektiboari gehituko zaizkio.

Bi. Bazkideak ezingo du boto eskubidea erabili interes gatazka hauetan:

- a) hartu beharreko erabakiak zuzenean eta eksklusiboki eragiten dionean, espedientatutako gehiengoaren parte denean izan ezik, eta
b) kooperatibak gauzatutako erantzukizun akzio baten subjektua denean.

Hiru. Bazkide laguntzaileen, ez-aktiboen edo ez-erabiltzaileen, eszedentzian dauden bazkideen eta iraupen jakineko bazkideen botoen guztizko kopurua ezin izango da, inola ere, kooperatibako boto guztien erdira iritsi.

29. ARTIKULUA. GEHIENGOAK

Bat. Batzar Nagusian erabakiak hartzeko, baliozkotasunez emandako botoen erdiak baino gehiago beharko dira. Ondorio horietarako, ez dira zenbatuko ez boto zuriak ez abstentzioak. Salbuespen izango dira Euskadiko Kooperatiben Legean edo estatutu sozial hauetan gehiengo indartua behar dutela adierazten diren kasuak. Gehiengoak osatzeko, ez dira zenbatuko ez boto zuriak ez abstentzioak.

Bi. Kooperatibaren eraldaketa, bategitea, zatiketa edo desegitea erabakitzeko, Batzarrean daudenen edo ordezkaturakoen botoen bi hereneko gehiengo beharko da, baldin eta bertaratutakoen eta ordezkaturakoen boto kopurua kooperatibako boto guztien ehuneko hirurogeita hamabost baino txikiagoa bada.

Hiru. Kontseilu Errektoreko kideak kargugabetzea erabakitzeko, ez bada gai zerrendan agertzen, bertaratutako eta ordezkaturako botoen bi herenen aldeko botoa beharko da.



30. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIAREN ERABAKIAK INPUGNATZEA

- Bat.** Batzar Nagusiaren erabakiak inpugnatu ahal izango dira baldin eta Legearen nahiz estatutuen aurkakoak badira edo kooperatibaren kaltetan hartu badira bazkide baten edo gehiagoren zein bazkide ez diren hirugarrenen mesedetan.
- Ez da egokia izango Kapital Sozietateen Legearen arabera eraginik gabe utzi den edo baliozkotasunez ordeztu den akordio bat inpugnatzea, ezta arau horrek xedatzen dituen gainerako kasuetan ere. Inpugnatzeko arrazoia ezabatu ahal bada, merkataritza arloko epaitegiak arrazoizko epe bat emango du inpugnazio hori zuzendu ahal izateko.
- Bi.** Inpugnatze akzioa honako hauek baliatu ahal izango dute: bazkideek, Kontseilu Errektoreko kideek, Zaintza Batzordeko kideek eta interes legitimoa duen bazkide ez den edozein hirugarrenek; aukera hori urtebetean iraingiko da, salbu eta erabaki horien kausa edo edukia ordena publikoaren aurkakoak direnean.
- Hiru.** Artikulu honetan xedatutako iraingitze epeak akordioa hartzen den egunetik aurrera zenbatuko dira, edo, inskriba badaiteke, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatzen den egunetik aurrera.
- Lau.** Oro har, inpugnatze prozedura Kapital Sozietateen Legean ezarritako arauetara egokituko da, salbuespen honekin: demanda idazkian inpugnatutako erabakia eteteko eskatzen bada, eskatzen duena Zaintza Batzordea izan beharko da, edo gutxienez boto kopuruaren %10 ordezkatzan duten bazkideak 50 bazkide baino gehiagoko kooperatibetan, %15 ordezkatzan dutenak 10 eta 50 bazkide bitarteko kooperatibetan, eta %20 ordezkatzan dutenak 10 bazkide baino gutxiagoko kooperatibetan.
- Bost.** Inpugnatze akzioaren baiespen epaiak bazkide guztiengan izango du eragina, baina ez die eragingo inpugnatutako erabakiaren ondorioz hirugarren ez-bazkide onustedunek lortutako eskubideei; inpugnatutako erabakia Euskadiko Kooperatiben Erregistroan jasota badago, epaiak inskripzio horren ezereztea aginduko du.

31. ARTIKULUA. KONTSEILU ERREKTOREA. IZAERA ETA ESKUMENAK

- Bat.** Kontseilu Errektorea kide anitzeko organo bat da, eta berari dagokio, eskusiboki, kooperatibaren kudeaketa eta ordezkaritza. Gainera, Legeak edo estatutu hauek beste organo sozial batzuei berariaz erreserbatzen ez dizkieten ahalmen guztiak baliatzen ditu.
- Bi.** Hauexek dira Kontseilu Errektoreari dagozkion ahalmen espezifikoak:
- a) Bazkideen onarpena eta baja erabakitzea, estatutu hauetan xedatutakoaren arabera.
 - b) Kooperatibaren ordezkari izatea, eskuordetza ahalmenarekin, erantzukizun osoz, edozein motatako egintza eta kontratuetan, eta, bereziki, parte hartzen duen erakundeetako organo sozialetan.
 - c) Zuzendaritza - Gerentzia izendatzea, eta, berak proposatuta, baita departamentuetako zuzendaritzak ere, eta horiek kargugabetzea eta dagozkien ahalak, betebeharrak eta ordainsariak edo lan aurrerakinak zehaztea. Hala badagokio, horien guztien aurkako erantzukizun akzioak gauzatzea.
 - d) Estatutuetako eskubideei eta betebeharrei, lanaren antolamenduari eta bazkideen lan eta diziplina araubideari lotutako gaiiei buruz erabakitzea.



- e) Kooperatibaren jarduna antolatu, zuzendu, kudeatu eta ikuskatzea eta Batzar Nagusiari, jakinaren gainean egon dadin, urteko kudeaketa planak eta epe luzerako plan estrategikoak aurkeztea, kooperatibaren politika eta estrategia orokorren proposamenekin, Kontseilu Errektoreak berak onartu ostean.
- f) Kontseilariak karguei uko egiteari, hutsik geratu diren postuak betetzeari eta, oro har, Kontseilu Errektorearen beraren barne funtzionamenduaren arauketari buruz egokiena erabakitzea eta erabakiak baliogabetzat jotzeko ekintzak burutzea, hala dagokienean eta/edo bere eskumenekoak direnean.
- g) Batzar Nagusiari estatutu sozialetan eta Kooperatibako Barne Araudian egoki iruditzen zaizkion aldaketak egitea proposatzea.
- h) Araudi funtzionalak onartzea, estatutuek eta araudiek jasotakoa behar bezala betetzeko beharrezkoak direnak, edo Batzarraren erabakiak betetzeak eskatzen dituenak.
- i) Xede soziala betetzeko beharrezko edo komenigarri izan litezkeen egintza eta kontratuak egitea: ondasun higiezinak eskuratu edo besterentzea, eskubide errealek eraketa –hipotekena eta, bereziki, errentamenduarena barne–, eta estatutu hauek kooperatibari baimentzen dizkioten negozio eta eragiketa mota guztiak ebaztea.
- j) Kooperatibari komenigarri gerta lekizkion eta Batzar Nagusiarentzat erreserbatuta ez dauden kreditu, mailegu zein sinadura bermeko eragiketak adostea.
- k) Erakunde publiko eta pribatuen aurrean abal ematea, bai eta zuzenbidean onartutako edozein motatako tituluak, zor publikokoak edo balio higigarri edo higiezinak erosi, saldu, harpidetu eta gordailutzea ere, baita horiek egoki irizitako moduan eragitea ere.
- l) Ekarpenak harpidetzeko eta bonuak eta obligazioak jaulkitzeko beharrezko dena erabakitzea, Batzar Nagusiak hartutako erabakien arabera.
- m) Erabilgarri dauden funtsen inbertsioa zehaztea, aurrekontuak egitea, gastuak baimentzea eta kooperatibaren ahalduak eta ordezkariak izendatzea, bakoitzari kasu bakoitzean egoki irizten zaizkion ahalmenak emanez.
- n) Urtero Ohiko Batzar Nagusiari urteko kontuak aurkeztea eta soberakin garbien banaketa edo, hala dagokionean, galeren egozketa proposatzea, bai eta bazkide berrientzako hasierako nahitaezko ekarpenak, aldizkako kuotak eta kuota bereziak zehaztea proposatzea ere.
- o) Batzar Nagusietarako deialdiak egitea, horiek prozesatzean sortzen diren arazoak ebaztea eta haien erabakiak betearaztea.
- p) Epaitegien eta auzitegi arrunt edo berezien aurrean eta estatuko, autonomia erkidegoetako, probintziako edo udalerriko administrazioetako bulego, agintaritzak, korporazio edo erakundeen aurrean kooperatibari dagozkion eskubideak edo ekintzak egikaritzeari buruz komenigarria dela irizten diona erabakitzea. Eta baita errekurso arrunt eta bereziak jartzeari dagokionez ere, ordezkariak eta prokuradore letratuak izendatuz, kooperatibaren ordezkariak eta defentsa egin dezaten horretarako. Izendatutakoei behar diren ahalmenak emango zaizkie, beharrezko den eran, kontziliazioetan, espedienteetan, auzietan, erreklamazioetan, errekursoetan edo edozein motatako jardunetarako eta prozeduraren edozein egoeratan adostasuna



agertzeko edo atzera egiteko, prozedura eteteko eskatzeko eta beharrezko den guztirako, baita kontu judizialak zabaltasun osoz onartzeko ere.

- q) Sozietatearen funtsak eta ondasunak eskuragarri izatea, erreklamatzea, jasotzea eta kobratzea, bai partikularrenak, bai bulego publikoenak, kutxa orokorrean eta interes sozialei komeni zaien lekuan gordailuak eratuz edo kenduz. Bankuko kontu korronteak eratzea, eskudiru, kreditu nahiz baloreenak, eta kontu korronte horietatik eskudirua edo baloreak erretiratzea eta, oro har, mota orotako banku eragiketak egitea estatuko nahiz atzerriko entitateekin, Espainiako Bankuan ere eragiketak eginez. Kooperatibarenak izanik korrespontsalen esku dauden funts eta ondasunak baliatzea. Kanbio letrak, agindurako ordaindukoak eta merkataritzako eta igorpeneko gainerako efektuak libratu, endosatu, abalatu, onartu eta erreklamatzea, onarpen edo ordainketa faltagatik eta segurtasun gehiago izateko.
- r) Pertsona jakinei ahalmenak ematea, helburu zehatzetarako edo jarduera sozialaren adar zehatz batzuk zuzentzeko.
- s) Hala badagokio, Batzar Nagusiari proposatzea kooperatiba konkurtsoan deklaratzeko eta desegitea, eta prozesu bakoitzaren faseak betetzea, bere eskumenen barruan.
- t) Estatutu hauek interpretatzean sortzen diren zalantzak argitzea eta egingo den lehen Batzar Nagusiari horren berri ematea.
- u) Estatutu hauetan berariaz jasotakoak.
- v) Kooperatibarentzat sinadura elektronikoa eskatzea eta haren izenean eta hura ordeztuz erabiltzea, erabil daitezkeen ekitaldi guztietarako.

Hiru. Kontseilu Errektorearen aurreko ahalmen zerrenda enuntziatiboa baino ez da, eta ez ditu bere ahalmenak mugatzen Legeak kooperatibaren beste organo sozial batzuentzat berariaz erreserbatzen dituen kontuetan.

32. ARTIKULUA. KONTSEILU ERREKTOREAREN OSAERA ETA BERRITZEA

Bat. Kontseilu Errektorea sei kidek osatuko dute, eta horien artean izendatuko dira lehendakariaren, idazkariaren eta lehendakariordearen karguak.

Hala ere, kooperatibak bere esku izango du, egoerak hala eskatzen badu, idazkari kargua bazkide edo kontseilari ez den pertsona batek betetzea. Pertsona horrek ez du ez hitzik ez botorik izango Kontseilu Errektorean.

Bi. Kontseilu Errektoreko kideak Batzar Nagusian hautatuko dira, isilpeko bozketan, emandako baliozko botoen kopururik handienaren arabera. Kontseilu Errektoreak berak banatuko ditu bere karguak, egiten duen lehen bileran.

Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 47.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, hauek izango dira Kontseilu Errektorea osatuko dutenak:

- Ustiategietako bazkide titularren (bazkide erabiltzaileak) arteko hiru kide.
- Lan bazkideen arteko bi kide, eta, halakorik ezean, halako bazkideek betetzen ez dituzten plazak ustiategietako bazkide titularrek beteko lituzkete.
- Bazkide laguntzaileen arteko kide bat.



Horiek guztiak aipatutako bazkide motetako pertsonen artean aukeratuko dira, estatutu hauetako 7. artikuluan arautzen den eran, isilpeko bozketa partzialetan. Bozketak bertaratutako edo baliozko ordezkapena duten bazkideen artean egingo dira, aukeraketa egitea dagokion Batzar Nagusian, lau urterako. Hala ere, berriro aukeratu ahal izango dira, epe berdinetarako. Agintaldia amaitutakoan, Kontseilu Errektoreko kideek behin-behinean jarraituko dute karguan, hurrengo Batzar Nagusia egin arte.

Izendapenarekin batera, hiru ordezko aukeratuko dira, eta horietako bat ustategiko bazkide titularra izango da; beste bat lan bazkidea izango da eta beste bat bazkide laguntzailea.

Kooperatiba saiatuko da organo honetan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izan dadin, eta oreka hori lortzen lagunduko duten neurriak sustatuko ditu, oreka ezin bete duenean.

Titulartasun partekatuko erakunde bat, sozietate zibil bat, ondasun erkidego bat edo nortasun juridikorik gabeko beste edozein erakunde aukeratzeko bada kide gisa, erakunde horiek ziurtagiri bidez jakinarazi beharko dute zein pertsonak beteko dituen karguaren funtzioak.

Hiru. Kontseilu Errektorea partzialki berrituko da bi urtean behin, eta lehen berritzeak bi kontseilari titularri, lan bazkide bati eta bazkide laguntzaile bati eragingo die. Ordezko kontseilari guztiak lau urtean behin berrituko dira.

Kontseilu Errektoreko kideren baten kargua behin betiko hutsik geratzen denean, ordezkoak hartuko du kargua berehala, dagokion bazkide motakoa, estatutuen arabera ordezkatuari geratzen zaion denborarako.

Lehendakari kargua hutsik geratzen bada, lehendakariordeak hartuko ditu bere gain haren funtzioak, lehenengo Batzarra egin arte, han aukeratuko baita lehendakaria.

Lehendakari kargua eta lehendakariorde kargua biak aldi berean gelditzen badira hutsik, Kontseilu Errektorean urte gehien dituen kideak berehala hartuko ditu bere gain lehendakariaren funtzioak, eta Batzar Nagusirako deialdia egingo da, hurrengo hogeita hamar eguneko epean karguak aukeratzeko.

Prozedura berari jarraituko zaio Kontseilu Errektorean gelditzen diren kontseilariekin, horien kopurua ez bada nahikoa organoa baliozkotasunez osatzeko eta ez badago ordezkorik hutsik dauden karguak betetzeko.

Ordezkorik ez badago, kontseilariak aukeratuak izan diren epean karguak hutsik gelditzen badira gutxiengo kopuruan, Kontseilu Errektoreak bazkideen artean izenda dezake kargu hutsa beteko duen pertsona, lehen Batzar Nagusia bildu bitartean.

Kontseilu Errektoreko kide batek karguari uko egitea arrazoitu egin beharko da eta idatziz jakinaraziko zaio Kontseilu Errektoreari, eta horrek zehaztu beharko du ea uko egiteko erabilitako arrazoia justifikatua den ala ez, eta erabakia idatziz jakinaraziko zaio interesdunari.

Uko egitearen kalifikazioa Errekurtso Batzordean errekurritu ahal izango da, nahitaezko bazarako ezarritako baldintza eta epe berdinetan.

Uko egitearen eragin data Kontseilu Errektoreko kide izateari uko egiten dion pertsonak uko egitearen berri ematerakoan jartzen duena izango da, eta data hori inoiz ezingo da izan jakinarazpen data baino lehenagokoa.



Kooperatibak uste badu uko egitea ez dagoela justifikatuta, aukera izango du, hala badagokio, Kontseilu Errektoreko kide izateari uko egiten dion pertsonari dagokion kalte-galeren indemnitazioa exijitzeko.

Lau. Ezingo dira Kontseilu Errektoreko kide izan:

- a) Emantzipatu gabeko adingabeak, judizialki ezgaitutako pertsonak, Konkurtso Legearen arabera desgaitutako pertsonak, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitutako aldia amaitu ez den bitartean, eta askatasunaren, ondarearen edo ordena sozioekonomikoaren aurkako delituengatik, segurtasun kolektiboaren aurkako delituengatik, Justizia Administrazioaren aurkako delituengatik edo edozein faltukeria motagatik kondenatutakoak, eta baita betetzen duten kargua dela-eta merkataritza jardun ezin dutenak ere.
- b) Funtzionarioak eta administrazio publikoaren zerbitzura diharduten langileak, dena delako sozietatearen berezko jarduerekin zerikusia duten funtzioak baldin badituzte, epaile eta magistratuak, eta legezko bateraezintasun batek ukitutako gainerako pertsonak.
- c) Beren kontura edo besteren kontura jardunez kooperatibarekin lehian sartzen diren jarduerak egiten dituztenak, edo modu batera edo bestera Kooperatibaren interesen aurkako jarduerak egiten dituztenak, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 49.4 artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.
- d) Zaintza Batzordeko eta Errekurtso Batzordeko kide direnak, eta Zuzendaritza - Gerentziakoak.
- e) Lan eszedentzian dauden bazkidegaiak, eszedentzia horrek irauten duen bitartean.
- f) Eszedentzian dauden lan bazkideak eta eszedentzian dauden bazkideak, eszedentziak irauten duen bitartean.

Bost. Batzar Nagusiak erabaki dezake, gai zerrendan agertu beharrik gabe, Kontseilu Errektorea osatzen duten pertsona guztiak edo batzuk kargutik kentzea, nahiz eta kasu horretan bertaratutakoan eta ordezkaturakoan botoen bi hereneko gehiengo kualifikatua behar izan kargugabetze horiek onartzeko.

Kontseilu Errektoreko kideren bat kargutik kentzen denean, Batzar Nagusian administrazio organoa osatuko duten pertsona berriak hautatuko dira bilkura berean, gai zerrendan halakorik agertu ez arren.

Sei. Kontseilu Errektoreko kideek beren kargua uzteak, edozein delarik arrazoia, Kooperatiben Erregistroan inskribatzen den unetik izango du eragina hirugarrenen aurrean.

33. ARTIKULUA. KONTSEILU ERREKTOREAREN FUNTZIONAMENDUA

Bat. Kontseilu Errektorea hiru hilean behin bilduko da, lehendakariak bere ekimenez edo gutxienez kontseilarien heren batek arrazoitutako eskaera bidez deitzen duen guztietan. Kontseiluaren bileretan bere eskumeneko gai guztiak aztertu eta erabaki ahal izango dira.

Bi. Kontseilu Errektorearen bilkuretara lehendakariak deituko du, idatziz, Kontseilua osatzen duten pertsona guztiei zuzenduta, gutxienez 5 egun lehenago. Premiazko bilerak, berriz, gutxienez egun bat lehenago deitu ahal izango dira. Era berean, deialdia posta elektronikoz, whatsapp bidez, sms bidez edo Kontseilu Errektorea osatzen duten pertsona guztien artean eskuragarri dagoen



beste edozein komunikazio bide erabiliz egin ahal izango da, baldin eta kooperatibak bidali duela eta jaso dela egiaztatzen bada.

Lehendakariak zazpi eguneko epean ez badio erantzuten, aurreko atalean aurreikusi bezala, kontseilarien herenek gutxienez egindako deialdi eskaerari, eskaera arrazoitua egin duenak Kontseilu Errektorera deialdia egin ahal izango du, baldin eta Kontseilu Errektorearen %40ren atxikimendua eskuratzen badu gutxienez.

Hiru. Kontseilu Errektorea baliozkotasunez eratuko da bilerara kontseilarien erdiak baino gehiago bertaratzen direnean. Kontseilariak pertsonalki parte hartuko dute, eta betebeharrak ezin izango da eskuordetu, eta erabakiak bertan dauden kontseilarien botoen erdiarekin baino gehiagorekin hartuko dira. Boto zuriak eta abstentzioak ez dira zenbatuko. Kontseilari bakoitzak boto bat izango du. Lehendakariaren botoak berdinketak ebatziko ditu.

Kontseilu Errektoreko kontseilariak aukera izango dute bideokonferentzia bidez edo antzeko sistemaren baten bidez parte hartzeko eta erabakiak baliozkotasunez hartzeko, baldin eta sistema horrek aukera ematen badu irudia, soinua eta ikusmenezko, entzumenezko eta ahozko interakzioa bi norabidetan eta aldi berean komunikatzeko.

Kontseilu Errektoreko kideren batek organo horren bileretan aurreko paragrafoan adierazitako moduan parte hartzen badu, idazkariak berariaz jasoko du aktan haren identitatea eta bertaratzeko erabilitako bitartekoa, erabakiak balioz hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzekin batera.

Lau. Bileraren akta lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute, eta labur eta zehatz jasoko dira eztabaidak, erabakien testua eta bozketen emaitzak, eta Kontseilu Errektorearen Akta Liburuan jasoko da.

Bost. Kontseilu Errektoreak kontseilari eskuordetu bat izendatu ahal izango du bere baitan. Horretarako, kideen bi herenen aldeko botoa beharko da, eta notario aurrean formalizatu beharko da, baina ez du ondorioz izango Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu arte.

Inola ere ezingo dira eskuordetu ez Batzar Nagusiari kontuak ematea ez urteko kontuak aurkeztea, ez eta Batzar Nagusiak Kontseilu Errektoreari ematen dizkion ahalmenak ere, Batzar Nagusiak berariaz baimentzen duenean izan ezik.

Sei. Kontseilu Errektoreak bertaratutakoen bi herenen aldeko botoa beharko du, gutxienez, honako erabaki hauek hartzeko:

- a) Jarduera zentro nagusi bat edo haren zati garrantzitsu bat ixtea edo lekuz aldatzea.
- b) Kooperatibaren jarduera murriztea, zabaltzea edo funtsezko aldaketak egitea.
- c) Kooperatibaren antolaketan garrantzi handiko aldaketak egitea.
- d) Beste erakunde batzuekin –kooperatibak izan ala ez–, kooperatibarentzat etengabeko eta balio handiko elkarlana dakarten harremanak egitea edo desegitea.
- e) Legeak hala ezartzen duenean.

Zazpi. Kontseilu Errektorearen ahalmenen bat Batzorde Betearazleari edo kontseilari delegatu bati modu iraunkorrean eskuordetzan emateko, baita kargu horiek beteko dituzten Kontseiluko kideak izendatzeko ere, Kontseilu Errektorea



osatzen duten kideen bi herenen aldeko botoa beharko da baliozkoa izan dadin, eta ez du ondoriozko izango Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu arte.

Inola ere ezingo dira eskuordetu ez Batzar Nagusiari kontuak ematea ez urteko kontuak aurkeztea, ez eta Batzar Nagusiak Kontseilu Errektoreari ematen dizkion ahalmenak ere, Batzar Nagusiak berariaz baimentzen duenean izan ezik.

34. ARTIKULUA. KONTSEILU ERREKTOREARI BURUZKO XEDAPENAK

Bat. Kontseilu Errektoreko lehendakariari dagokio:

- a) Kooperatiba ordezkatzeari, Kontseilu Errektorearen izenean, gaia edozein dela ere, eta baita Kontseiluaren eta Batzar Nagusiaren bileren buru izatea ere.
- b) Ahalordeak ematea eta dokumentuak, publikoak nahiz pribatuak, sinatzea, Batzar Nagusiak edo Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiak betetz.
- c) Erabakiak hartzeko orduan Kontseilu Errektorean gerta daitezkeen berdinketak bere botoarekin ebaztea.
- d) Urgentziazko erabakiak hartzea. Erabaki horien berri berehala eman beharko du Kontseilu Errektoreak egiten duen lehen bileran.
- e) Egiten diren ordainketak bere sinadurarekin baimentzea.
- f) Kontseilu Errektoreak agintzen dizkionak.

Bi. Lehendakariordeak lehendakaria ordeztuko du eta lehendakariari esleitutako funtzioak egingo ditu hura ez dagoenean. Halaber, Kontseilu Errektoreak eta lehendakariak agintzen dizkioten egitekoak eta kudeaketak egingo ditu, bereziki lehendakariak Kontseilu Errektoreko beste kide batzuegan eskuordetu ditzakeen kudeaketak.

Hiru. Idazkariak funtzio hauek izango ditu:

- a) Espedienteak osatzea eta horiek behar den bezala tramitatzea.
- b) Lehendakariarentzat edo lehendakariordearentzat erreserbatuta ez dauden gutunak eta dokumentuak sinatzea.
- c) Batzar Nagusietako eta Kontseilu Errektoreko deialdiak idatzi eta igortzea.
- d) Aipatutako bi organoen bileretako aktak egitea.
- e) Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen artxiboaren, erregistro liburuaren eta akta liburuaren gordetzaileria izatea.
- f) Kooperatibaren liburuaren eta dokumentuen ziurtagiriak egitea, lehendakariaren oniritziarekin.
- g) Kontseilu Errektoreak esleitzen dizkionak.

35. ARTIKULUA. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEEN ERANTZUKIZUNAK ETA ERANTZUKIZUN AKZIOA

Bat. Kontseilu Errektorea osatzen duten pertsonak ez dute karguagatik ordainsari berezirik jasoko, funtzio horiek doan betetzen baitira; horrek ez du esan nahi, ordea, kontseilariari horretan jarduteagatik sortzen diren gastuak konpentsatuko ez zaizkienik.



- Bi.** Kontseilu Errektoreko kideek beren kargua bete beharko dute eta legeek eta estatutu sozialek ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte enpresari ordenatu baten arduraz, kontuan hartuta karguaren izaera eta horietako bakoitzari esleitutako funtzioak; horretarako, kooperatiba behar bezala kudeatzeko eta ordezkatzeko behar diren neurriak hartuko dituzte.
- Ordezkarri zintzo baten leialtasunez beteko dute beren kargua, fede onez jardungo dute kooperatibaren interesaren mesedetan, eta beren ahalmenak ez dituzte erabiliko eman zaizkien helburuetarako ez diren beste batzuetarako.
- Hiru.** Kontseilariak, beren funtzioak amaitu eta gero ere, sekretupean gorde behar dituzte datu konfidentzialak, Legeak bestelakorik ahalbidetzen edo agintzen duenean salbu.
- Lau.** Kontseilariak ez dute beren konturako jarduerarik egingo, baldin eta kooperatibarekin lehian sartzen badira edo, modu batera edo bestera, kooperatibaren interesekin gatazka sortzen bada.
- Halako gatazka egoeretan sartuta dagoen kontseilariak ezin izango du parte hartu dagokion bozketan.
- Aipaturiko baimenik gabe gauzatutako egintzak, kontratuak eta eragiketak deuseztatu egin ahal izango dira, eta hirugarren ez-bazkide onustedunek eskuraturiko eskubideak mantendu egingo dira.
- Bost.** Kontseilariak, doloz edo erruz esku hartu duten guztietan, legearen edo estatutu sozialen aurkako egintzen ondorioz edo karguari datxezkion eginbeharrak ez betetzeagatik egindako kalteen erantzukizuna izango dute.
- Egintza edo erabaki kaltegarria gauzatu edo onartu duen organoko kide guztiek izango dute erantzukizun solidarioa, salbu eta frogatzen badute ez zutela parte hartu erabakia hartzen edo gauzatzeko, eta ez zekitelako edo, jakitekotan, ahal zuten guztia egin zutela kaltea ekiditeko, edo, gutxienez, berariaz egin zutela aurka.
- Erantzukizuna berbera izango da ekintza edo erabaki kaltegarria Batzar Nagusiak hartu, baimendu edo berretsi bazuen ere.
- Sei.** Kontseilu Errektoreko kideen aurkako erantzukizuneko akzio soziala kooperatibaren esku egongo da; aurrez Batzar Nagusiak gehiengo soilez erabaki beharko du, nahiz eta eguneko gai zerrendan halakorik agertu ez. Batzar Nagusiak edonoiz emango dio baiezkoa nahiz ezezkoa ekintza aurrera eramateari. Batzar Nagusiak akzioa bultzatzea edo aurrera eramatea onartzea erabakiz gero, Kontseilu Errektoreko eragindako kideak kargutik kanpo geratuko dira automatikoki.
- Erabakia hartu osteko hiru hilabeteetan kooperatibak berak erantzukizuneko akziorik hasten ez badu, edozein bazkidek egin ahal izango du. Halaber, botoen ehuneko hogeitaz ordezkatzeko duten bazkideek ere hasi ahal izango dute erantzukizuneko akzioa sozietatearen interesaren defentsan, baldin eta kontseilariak ez badute deitzen horretarako eskaturiko Batzar Nagusira.
- Zazpi.** Akzioa iraungita geratuko da erantzukizuna eskatzeko arrazoi diren egintzak gertatu edo ezagutu eta bi urte pasa eta gero.
- Zortzi.** Aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, salbu geratzen dira bazkideei eta bazkide ez diren hirugarrenei dagozkien banakako akzioak, beren interesak zuzenean kaltetzen dituzten kontseilarien egintzen ondoriozkoak.



36. ARTIKULUA. ERABAKIAK INPUGNATZEA

- Bat.** Kontseilu Errektorearen erabakiak edo, hala badagokio, Batzorde Betearazlearenak, inpugnatu ahal izango dira, baldin eta Legearen edo estatutu sozialen aurkakoak badira edo kooperatibaren kaltetan hartu badira, bazkide baten edo gehiagoren zein bazkide ez direnen mesedetan.
- Balio gabe utzitako edo baliozko beste baten bidez ordezkaturako erabakiak ezin izango dira inpugnatu.
- Bi.** Hauek egongo dira legitimatuta inpugnazio ekintzak gauzatzeko:
- Edozein bazkide, erabakiaren berri izan eta 60 eguneko epearen barruan, baldin eta erabakia hartu zenetik urtebete pasatu ez bada.
 - Kontseilu Errektoreko eta Zaintza Batzordeko kideak, halakorik balego, erabakia hartu eta 60 eguneko epean.
- Hiru.** Inpugnazioak, berez, aurreikusitako ondorioak izango ditu, eta Batzar Nagusiaren erabakiak inpugnatzeko ezarritakoaren arabera tramitatuko da.

37. ARTIKULUA. ZUZENDARI GERENTEA. IZENDATZEA ETA KARGUGABETZEA. ZUZENDARI GERENTEAREN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK

- Bat.** Kontseilu Errektoreak zuzendari gerente bat izendatu ahal izango du kooperatibaren jarduera profesionalizatua kudeatzeko.
- Bi.** Zuzendari gerentearen izendapena eta funtzioak arau hauen menpe egongo dira:
- Bere eskumenak Kontseilu Errektoreak eskuordetutakoak izango dira beti. Kontseiluak kontrol iraunkor eta zuzena egingo dio, eta aipaturako organo sozialak onartutako kudeaketa helburuak betetzeko exijituko dio.
 - Halaber, Kontseilu Errektorea izango da organo eskuduna zuzendari gerentearen kargua betetzen duen pertsona izendatzeko eta kargugabetzeko. Izendapena eta kargugabetzea Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dira, eman zaizkion eskumenen ahalordetze eskriturarekin batera.
 - Zuzendari gerentea bazkidea edo ez-bazkidea izan daiteke.
 - Zuzendari gerenteari Kontseilu Errektorearentzat aurreikusitako arauak izango zaizkio aplikagarri, baina erantzukizun akzioa, gainera, aipaturako organo sozialak baliatu ahal izango du, Batzar Nagusiaren erabaki sozialak inpugnatzeko ezarritako epe beraren barruan.
 - Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 44. artikuluan xedaturako debekuak eta bateraezintasunak dituzten pertsonak ezin dira izan zuzendari gerente, ezta kooperatibako organo sozial bateko kide direnak ere.

38. ARTIKULUA. ZAINZTA BATZORDEA

- Bat.** Estatutu hauen arabera bateraezintasunik edo eskubide etendurarik ez duten bazkideen artetik, Batzar Nagusiak hiru kide izendatuko ditu isilpeko bozketan, eta horiek osatuko dute Zaintza Batzordea, eta ordezkioak ere izendatu ahal izango ditu bost urterako.



-
- Bi.** Zaintza Batzordea osatzen duten kideak berraukeratu ahal izango dituzte, eta erantzukizun, ezgaitasun, debeku, ordainsari eta inskripzio arauen menpe geratuko dira, estatutu hauek eta Legeak Kontseilu Errektoreko kideentzat ezarritakoaren arabera.
- Hiru.** Zaintza Batzordeak lehendakari bat eta idazkari bat izendatuko ditu. Urtean bi aldiz elkartuko da gutxienez, lehendakariak deialdia egin ondoren. Hala ere, Kontseilu Errektoreko edozein kontseilarik edo Zaintza Batzordeko edozein pertsonak idatziz eskatu diezaioke organo horretako lehendakariari bilerara deitzeko, eskaeraren zergatiak adierazita. Eskaera Kontseilu Errektorea edo Zaintza Batzordea osatzen duten kideen herenek gutxienez egina bada eta hilabeteko epean deitzen ez bada, talde eskatzaileetako edozeinek egin ahal izango du deialdia.
- Lau.** Kontseilu Errektoreak gutxienez hiru hilean behin emango dio Zaintza Batzordeari kooperatibaren jardueren eta aurreikus daitekeen bilakaeraren berri.
- Bost.** Zaintza Batzordea baliozkotasunez erataka geratuko da bilerara kideen erdiak baino gehiago bertaratzen direnean. Bertaratzea pertsonala eta eskuordezina izango da, eta bileran dauden Zaintza Batzordeko kideen botoen erdiek baino gehiagok hartuko dituzte erabakiak. Kontseilari bakoitzak boto bat izango du. Lehendakariaren botoak ez ditu berdinketak ebatziko. Boto zuriak eta abstentzioak ez dira zenbatuko.
- Sei.** Bileraren akta lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute, eta labur eta zehatz jasoko dira eztabaidak, erabakien testua eta bozketen emaitzak, eta hori guztia akta liburuan jasoko da.
- Zazpi.** Zaintza Batzordeak honako funtzio hauek betetzeko ahalmena du:
- a) Urteko kontuak aztertzea eta kontu horiei eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz derrigorrezko txosten bat egitea, Batzar Nagusian aurkeztu aurretik, salbu eta kooperatibak bere finantza egoera kontu ikuskaritzaren baten aurrean aurkeztu behar duenean.
 - b) Kooperatibaren liburuak berrikustea.
 - c) Batzar Nagusirako deia egitea, kooperatibaren intereserako beharrezkotzat jotzen duenean eta kontseilariak, ezarritako epeetan, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 35. artikulua 2. eta 3. ataletan xedatutakoaren arabera bazkideek aurrez egindako eskaerari jaramonik egin ez diotenean.
 - d) Ordezkaritza idazkiak egokiak diren ikuskatu eta kalifikatzea, eta, oro har, batzarretara joateko eskubidearen inguruko zalantza eta gorabeherak konpontzea.
 - e) Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legean aurreikusitako kasuetan, erabaki sozialak inpugnatzea.
 - f) Batzar Nagusiari ematea Batzarrak berak eskatutako egoera edo gai zehatzei buruzko informazioa.
 - g) Batzar Nagusiak gainerako organoak osatzen dituzten pertsonak hautatzeko eta izendatzeko prozesua zaintzea.
 - h) Estatutuetako 32.4 artikuluko ezintasun edo debeku kausaren batean sartu diren kontseilarien jarduna etetea, eta, hala badagokio, Batzar Nagusia egin arte ezinbestekoak diren neurriak hartzea.



- i) Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak berariaz agintzen dizkion gainerako funtzioak.

Zortzi. Kooperatiba bere finantza egoerak ikuskatzera behartuta dagoenean, kideek egoki baderitzote, Zaintza Batzordeak kontabilitate euskarri desberdinak aztertu ahal izango ditu, eta, hala badagokio, horiei buruzko txostena egin. Dena den, txosten hori ez da nahitaezkoa izango kooperatibaren urteko kontu ikuskatuak onartzeko.

Era berean, urteko kontuak ikuskatu arren, Zaintza Batzordeak soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko txostena egin ahal izango du.

Kasu bietan, Zaintza Batzordeak kontseilarietara jakinarazi beharko die kooperatibaren urteko kontuei eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko nahitaezko txostena aurkezteko asmoa duela, bazkideek ohiko Batzar Nagusiaren deialdia argitaratzen den unean bertan aztertu ahal izan dezaten.

Bederatzi. Likidazioaldian, Zaintza Batzordeak aurreko artikuluan adierazitako funtzioak baino ez ditu beteko, baldin eta aldi horretan egokiak badira.

39. ARTIKULUA. KONTSEILU SOZIALA

Bat. Kontseilu Soziala lan bazkideen ordezkaritza organoa izango da, eta Kontseilu Errektoreari informazioa eta aholkularitza eman eta kontsulta egiteko oinarritzko funtzioak izango ditu lan harremanei eragiten dieten alderdi guztietan, eta horiei buruzko nahitaezko txostena egin beharko du.

Bi. Kontseilu Sozialeko kide guztiak lan bazkideak izango dira, eta lan bazkideek aukeratuko dituzte, isilpeko bozketan.

Hautatutako pertsonen gain beste hauek ere Kontseilu Sozialeko kide izango dira: Kontseilu Errektoreko lehendakaria eta Zuzendaritza Soziala edo lan bazkideak kudeatzeko ardurak dituen zuzendaritza.

Kontseilu Sozialesan iraupen jakineko bazkideen kopurua ezingo da izan kide guztien %20 baino gehiago, eta emaitza beheko osoko zenbakira biribilduko da.

Hiru. Agintaldiak lau urte iraungo du eta bi urtean behin partzialki berrituko da, aldi bakoitzean kontseilarien erdiak berrituta; kide denak berraukeratuak izan daitezke.

Kargua uzteko arrazoi izango dira, agintaldia amaitzeaz gainera, honako hauek:

- a) Lan bazkidearen izaera galtzea, edo laneko eszedentzia egoerara igarotzea.
- b) Diziplina sozialeko araubidea aplikatuta, zehapenak horrela agintzen duenean.
- c) Batzar Nagusiak, isilpeko bozketan, erabakitako kargugabetzea.

Lau. Kontseilu Sozialaren funtzionamendua

Kontseilu Sozialak gutxienez sei hilean behin egingo du ohiko bilera. Gainera, Lehendakariak hala irizten dion aldiro ere elkartzeko da, edo gutxienez kideen herenek hala egiteko eskatzen dutenean.

Deialdiak egiteko ahalmena lehendakariarena da, eta bertan zehaztuko dira data, ordua, lekua, gai zerrenda eta gainerako berezitasunak. Kontseilu Sozialaren bileretara, kontseilua osatzen duten kideez gain, kooperatibako beste pertsona batzuk ere joan ahal izango dira, hitzarekin baina botorik gabe, organo horrek interesgarritzat jotzen baditu.



Kontseilu Soziala baliozkotasunez eratuta geratuko da kideen erdiek baino gehiagok parte hartzen dutenean. Kideek pertsonalki parte hartu beharko dute, eta badaukate ordezkoarengan eskuordetzeko aukera.

Bertaratutakoek baliozkotasunez emandako botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak. Lehendakariaren botoak berdinketak ebatziko ditu.

Kontseilu Sozialeko kideek aukera izango dute bideokonferentzia bidez edo antzeko sistemaren baten bidez parte hartzeko eta erabakiak baliozkotasunez hartzeko, baldin eta sistema horrek aukera ematen badu irudia, soinua eta ikusmenezko, entzumenezko eta ahozko interakzioa bi norabidetan eta aldi berean komunikatzeko.

Kontseilu Sozialeko kideren batek organo horren bileretan aurreko paragrafoan adierazitako moduan parte hartzen badu, idazkariak berariaz jasoko du aktan haren identitatea eta bertaratzeko erabilitako bitartekoa, erabakiak balioz hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzekin batera.

Idazkariak bilera bakoitzaren akta jasoko du. Aktak hurrengo bileran onartuko dira; horrek ez du esan nahi, ordea, bere eskumeneko erabakiak irmoak izango ez direnik hartu diren une beretik aurrera.

Bost. Kontseilu Sozialaren eskumenak

Hauek dira Kontseilu Sozialaren funtzioak:

- a) a) Kontseilu Errektorearen informazioa, aholkularitza eta kontsulta, lan harremanari eragiten dioten gaitan. Horiei buruzko nahitaezko txostena egitea.
- b) b) Ordezkatuei informazioa ematea, eta ekarpenak eta iritziak eskatzea, a) atalean adierazitako gai eta kontuetan.
- c) c) Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak berariaz ematen dizkion gainerakoak.

Kontseilu Sozialak edozein unetan eskatu ahal izango ditu beharrezkotzat jotzen dituen azalpen eta informazio osagarriak, bere funtzioak hobeto betetzeko; gainera, egokitzen jotzen dituen neurriak ere proposatu ahal izango ditu.

40. ARTIKULUA. ERREKURTSO BATZORDEA

Bat. Errekurtsu Batzordeak eskumena du, eragindako pertsonak hala eskatzen badu, erakundearen bazkideen arau hauste astun edo oso astunengatik lehen auzialdian hartutako zehapen erabakiak berrikusteko. Diziplinazkoak ez diren erabakien aurka ere jarri ahal izango da errekurtsu batzorde horretan, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak eta estatutu hauek horretarako aukera ematen dutenean.

Bi. Organo honetako kideak izan daitezke bakarrik eskubide osoko pertsonak, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Antzintasuna: bost urtekoa edo kooperatibak duena, txikiagoa bada.
- b) Esperientzia kooperatiboa: halakotzat joko da kooperatibako organo sozialen bateko kide izan den bazkidea, edo kooperatibako barne araudi osoari buruzko ezagutza egoki eta eguneratua duela egiaztatzen duena.
- c) Egokitasuna: kooperatiban ibilbide bikaina duen pertsona izatea, eta, azken 5 urteetan, arau hauste sozialak edo lana egitearekin lotutakoak –astunak edo oso astunak– egiteagatik espedienterik ez edukitzea.



d) Kooperatiban inolako kargu sozialik ez izatea.

e) Ez izatea kooperatibako soldatapekoak.

Hiru. Errekurtso Batzordeko kideak 3 titular eta ordeko bat izango dira, Batzar Nagusiak 4 urterako –aldi hori berritu egin ahal izango da– isilpeko bozketan hautatuak.

Lau. Errekurtso Batzordeak baliozkotasunez erabakiko du bilkurara kideen erdiak baino gehiago bertaratzen direnean. Boto eskuordetza ez da baliozkoa izango, eta erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Diziplina arloko ebazpenak emateko bozketa isilpekoa izango da beti, eta ez da egongo lehendakariaren kalitateko botorik.

Errekurtso Batzordeko kideek aukera izango dute bideokonferentzia bidez edo antzeko sistemaren baten bidez parte hartzeko eta erabakiak baliozkotasunez hartzeko, baldin eta sistema horrek aukera ematen badu irudia, soinua eta ikusmenezko, entzumenezko eta ahozko interakzioa bi norabidetan eta aldi berean komunikatzeko.

Errekurtso Batzordeko kideren batek organo horren bileretan aurreko paragrafoan adierazitako moduan parte hartzen badu, idazkariak berariaz jasoko du aktan haren identitatea eta bertaratzeko erabilitako bitartekoa, erabakiak balioz hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzekin batera.

Bost. Errekurtso Batzordeko kideek, eragindako bazkideari dagokionez, errekurtsoen tramitazio eta ebazpenean ezin izango dute parte hartu bigarren mailako odol ahaidetasuna edo ezkontza ahaidetasuna badute, edo espedientepean dagoen pertsonarekiko menpekotasuna, adiskidetasun mina edo ageriko etsaitasunezko loturak badituzte.

Sei. Errekurtso Batzordearen erabakiak behin betikoak eta berehala betearaztekoak izango dira, borondate sozialaren adierazpide gisa, eta inpugnatuak izan daitezke, Batzar Nagusiak hartu izan balitu bezala, estatutu hauetako 30. artikuluan ezarritakoaren arabera.



V. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

41. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNAK

- Bat.** Bazkideek ez dute pertsonalki erantzungo sozietatearen zorreatatik. Zor horietatik duten erantzukizuna kapital sozialerako izenpetu zituzten ekarpenetara mugatzen da.
- Bi.** Itzuli beharreko ekarpenen zenbatekoa finkatu ondoren, baja hartzen duten bazkideek ez dute inolako erantzukizunik izango baja hartu aurretik kooperatibak hartutako zorreatatik.
- Hiru.** Bazkideek, baja eman eta gero ere, erantzukizuna izango dute baldin eta kontratuak izenpetu edo betebeharrak hartu badituzte, berariaz eta espresuki, sozietate kooperatiboarekin, eta betebeharrak ez badira azkentzen, beren izaera dela-eta, bazkide izateari utzi eta gero.

42. ARTIKULUA. KAPITAL SOZIALA

- Bat.** Kooperatibaren kapital soziala bazkideen nahitaezko zein borondatezko ondare ekarpenek osatzen dute.
- Bi.** Kooperatibaren gutxieneko kapital soziala hiru mila eurokoa (3.000,00) da.
- Hiru.** Kapital sozialerako ekarpenak partaidetza txartel izendunen bidez egiaztatuko dira.
- Lau.** Ekarpenak dirutan egingo dira, baina ondasunetan edo eskubideetan ere egin ahal izango dira. Kasu horretan, Kontseilu Errektoreak erabakiko du zein den haien balioa, horretarako izendatutako aditu independente batek txostena egin ondoren.
- Bost.** Bazkideek kapital sozialera egiten dituzten ekarpenak honelakoak izan daitezke:
- a) Baja hartuz gero, itzultzeko eskubidea duten ekarpenak, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko Legearen 60.1.a artikulua araberako. Aipatutako ekarpenak honako hauek izango dira:
 1. Lan bazkideen hasierako nahitaezko ekarpenak.
 2. Edozein motatako bazkideek egindako borondatezko ekarpenak.
 - b) Kontseilu Errektoreak baldintza gabe ukatuz gero itzultzeko eskubiderik ez duten ekarpenak, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 60-1-b artikulua araberako. Aipatutako ekarpenak honako hauek izango dira:
 1. Ustategietako bazkide titularren (bazkide erabiltzaileak) hasierako nahitaezko ekarpenak.
 2. Bazkide laguntzaileen hasierako nahitaezko ekarpenak.
- Baja gertatuz gero itzulketa eskubidea duten ekarpenak kooperatibak baldintzarik gabe itzultzeari uko egin diezaiokeen ekarpen bihurtzeko, edo alderantzizko eraldaketarako, estatutuak aldatzeko erabakia hartu beharko da. Bazkideren bat ez badago ados, baja eman ahal izango du, eta baja hori justifikatutzat joko da.



43. ARTIKULUA. KAPITAL SOZIALERAKO NAHITAEZKO EKARPENAK

Bat. Hasierako nahitaezko ekarpena desberdina izan daiteke bazkide motaren arabera, eta honela zehazten da:

- Ustiattegiko bazkide titularrak (bazkide erabiltzaileak): hirurogei (60,00) euro.
- Iraupen jakineko lan bazkideak: hirurogei (60,00) euro.
- Lan bazkide mugagabeak: hirurogei (60,00) euro.
- Bazkide laguntzaile pertsona fisikoak: hirurogei (60,00) euro.
- Bazkide laguntzaile pertsona juridikoak: mila (1.000,00) euro.
- Bazkide ez-erabiltzailea: hirurogei (60,00) euro.
- Bazkide ez-aktiboa: hirurogei (60,00) euro.
- Eszedentzian dauden bazkideak: hirurogei (60,00) euro.

Bazkide bakoitzak kapital sozialera egin beharreko gutxieneko nahitaezko ekarpena une bakoitzean indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarpenaren ehuneko ehun izango da, bazkide mota bakoitzerako.

Bi. Ustiattegiko bazkide titular (bazkide erabiltzaile), lan bazkide mugagabe zein iraupen jakineko bazkide, bazkide ez-erabiltzaile, bazkide ez-aktibo, eszedentzian dagoen bazkide eta pertsona fisiko den bazkide laguntzaile izateko hasierako nahitaezko ekarpena harpidetu eta osorik ordaindu beharko dute harpidetzaren unean.

Pertsona juridikoak diren bazkide laguntzaileentzat, %25 hasierako unean ordainduko da, eta gainerakoa gehienez ere 2 urteko epean.

Hiru. Bazkideei egotzitako kooperatibaren galerengatik edo estatutuetan aurreikusitako zehapen ekonomikoarengatik bazkide batzuen kapital sozialerako ekarpena estatutu sozialetako artikulua honen Bat atalean adierazitako gutxieneko kopuruaren azpitik gelditzen bada, egoera horretan dauden bazkideek kopuru horretara iristeko behar duten ekarpena egin beharko dute eta, horretarako, Kontseilu Errektoreak berehala eskatuko die bazkideei ekarpena egiteko. Ekarpene hori gehienez ere urtebeteko epean ordainduko da, Kontseilu Errektorearen errekerimendua jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.

Lau. Batzar Nagusiak urtero bazkide berriek hasieran nahitaez egin beharreko ekarpenaren zenbatekoa zehaztuko du eta nahitaezko ekarpen berriak egin beharra ere erabaki ahal izango du, zenbatekoa jarriz, zeina desberdina izango den bazkide mota desberdinentzat, ordainketa egiteko epeak eta baldintzak ere zehaztuz. Ados ez dagoen bazkideak baja hartu ahal izango du, eta baja hori justifikatutzat hartuko da.

Batzar Nagusiak bazkideentzako nahitaezko ekarpen berriak adosten baditu, kooperatiban bazkideen borondatezko ekarpenik egonez gero, bazkideek nahitaezko ekarpen berriak haiekin estali ahal izango dituzte, baldin eta Kontseilu Errektoreari idatziz eskatzen badiote, hamar eguneko epean, erabakia hartu zen egunetik zenbatzen hasita, bertaratutako bazkideei dagokienez; batzarrean egon ez ziren bazkideei dagokienez, berriz, zenbaketa erabakiaren berri izan zuten egunean hasiko da.

Bost. Aurreko paragrafoetan ezarritakoaren arabera, eska daitezkeen ekarpenak ordaintzen berandutzen den bazkideak legezko interesa ordaindu beharko dio kooperatibari, eta berankortasunak eragindako kalte-galeren ordaina eman.



Eskatzen zaionetik hirurogei eguneko epean bere egoera normalizatzen ez duen bazkideari dagokionez:

- a) Nahitaezko baja eman ahal izango zaio bazkide izateko hasierako nahitaezko ekarpenaz ari bagara edo artikuluko honetako Bat atalari dagokionez Hiru atalean aipatzen den gutxieneko zenbatekoaz ari bagara, edo
- b) gainerako kasuetan, kooperatibatik kanporatu egin ahal izango dute.

44. ARTIKULUA. BORONDATEZKO EKARPENAK

Bat. Batzar Nagusiak bazkideek kapital sozialari borondatez egin beharreko ekarpenak onartzea erabaki ahal izango du, kontzeptu hauen baldintzak zehaztuta gutxienez:

- Ordaintzeko epeak
- Interes tasa
- Eguneraketa
- Diru itzulketa
- Eskualdagarritasuna

zeinak nahitaezko ekarpenak baino onuragarriagoak izan baitaitezke, betiere diruaren legezko interesa gainditu gabe.

Bi. Kontseilu Errektoreak bazkideen borondatezko ekarpenak onartu ahal izango ditu, ordainsari mugak eta muga kuantitatiboak errespetatuz, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 62-2 eta 60.5 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

45. ARTIKULUA. EKARPENAK EGUNERATZEA

Bat. Kooperatibaren balantzea zuzenbide erkideko sozietateentzat ezarritako modu eta baldintza berberetan erregularizatuko da.

Bi. Balantzea erregularizatzearen ondoriozko gainbalioa, ekitaldi batean edo gehiagotan, lehenik eta behin, dauden galerak konpentsatzeko erabiliko da, eta gainerakoa, halakorik badago, Batzar Nagusiak erabakitako zenbatekoetan, kapitala eguneratzera edo erreserbak handitzera, izan nahitaezkoak izan borondatezko banaezinak.

46. ARTIKULUA. EKARPENEN INTERESA

Bat. Hala badagokio, Batzar Nagusiaren erabakiz kapital sozialerako ekarpenetarako ordaindu beharreko interesak ezin izango du diruaren legezko interes tasa gainditu.

Bi. Bazkide laguntzaileen ekarpenek, edo bazkide ez-aktiboen ekarpenek, izan nahitaezkoak izan borondatezkoak, ez dute inolako interesik jasoko.

Hiru. Lan bazkideen eta ustiategiko bazkide titularren (bazkide erabiltzaileak) kapital sozialerako ekarpenen ordainketa, nahitaezkoak nahiz borondatezkoak izan, emaitza garbi positiboak edo ordainketa egiteko erabilera askeko nahikoa erreserba egotearen mende egongo da.

Lau. Batzar Nagusiak adierazitako ekarpenei interesa sortzea erabakitzen badu, 42. Bost. b) artikuluan aurreikusitako ekarpenek, kooperatibak itzulketari uko egin



badio eta titularrek baja hartu badute, lehentasunezko ordainsaria izango dute beste ekarpenen aldean, eta puntu bat gehituko da.

47. ARTIKULUA. EKARPENAK ESKUALDATZEA

Bat. Ekarpinak *inter vivos* (bizien arteko) egintzen eta *mortis causa* (heriotzagatik) oinordetza bidez eskualda daitezke.

Titularren bajaren ondoren, kooperatibak itzultzea ukatu duen ekarpinak badaude, bazkide berrien hasierako nahitaezko ekarpinak baja hartu duten bazkideen ekarpinak eskuratuz egin beharko dira.

Eskualdaketa hori itzulketa eskaeren antzintasunaren arabera egingo da, eta data bera duten eskaerak egonez gero, ekarpenen zenbatekoaren arabera banatuko da.

Bi. *Inter vivos* egintzen bidez, bazkideen eta hurrengo hiru hilabeteetan bazkide izateko konpromisoa hartzen dutenen artean, honako arau hauen arabera:

- bazkide izateko konpromisoa hartu duen pertsonari eskualdatzeko baldintza izango da hura egiazki bazkide gisa onartua izatea;
- eskualdatzen duen bazkidearen ekarpina ezingo da gelditu une bakoitzean indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarpina baino beherago;
- eskualdatutako ekarpina hasierako nahitaezko ekarpina estaltzeko erabili ahal izango du eskuratzailerak;
- adostutako eskualdaketak Kontseilu Errektoreari jakinaraziko zaizkio, berretsi, kontrolatu eta erregistratu ditzan.

Hiru. *Mortis causa* oinordetzaren bidez, kausadunei, bazkideak badira eta eskatzen badute, edo, bazkide ez badira, bazkidetzat onartu ondoren, heredatzen duenak heriotza gertatu eta hurrengo hiru hilabeteko epean eskatuta.

Lau. Bazkideen hartzekodun pertsonalek ez dute inongo eskubiderik izango ez kooperatibaren ondasunen gainean ez bazkideek kapital sozialari egindako ekarpenen gainean, biak ala biak ezin enbargatuzkoak baitira. Horrek guztiak ez die kalterik egingo hartzekodunak bazkideari dagozkion itzulketen eta interesen gainean balia ditzakeen eskubideei.

48. ARTIKULUA. EKARPENAK ITZULTZEA

Bat. Bazkide izateari uzten zaion kasu guztietan, bazkideak edo haren kausadunek nahitaezko ekarpen kooperatiboen itzulketa eskatzeko ahalmena dute, baja egunean zeukaten balioarekin eta legezko xedapenetan ezarritako betekizunekin.

Hala ere, Kontseilu Errektoreak uko egin ahal izango dio, baldintzarik gabe, estatutu hauetako 42. Bost. b) artikuluan adierazitako ekarpenak itzultzeko edozein eskaerari.

Nolanahi ere, Kontseilu Errektoreak uko egin beharko dio, baldintzarik gabe, ekarpenak itzultzeko edozein eskaerari, baldin eta ezarritako ratioaren edo erreferentziaren estaldura nahikoa ez izatea badakarkio kooperatibari.

Itzulketa sistemak arau hauei jarraituko die:

- a) Kontseilu Errektoreak ekarpenak itzultzeko eskaera onartzea erabakitzen badu, erabaki hori hartzen den unetik hasi eta gehienez bost urteko epean itzuli beharko dira ekarpenok, edo urtebeteko epean, baldin eta bazkidearen



heriotzagatik eskatu bada itzulketa. Erabaki hori Kontseilu Errektorearen esku egongo da.

- b) Kontseilu Errektoreak erabakitako itzulketak eskaeren antzinasunaren arabera egin behar dira. Era berean, ekarpen sozialak itzultzeko baldintzei buruzko gainontzeko xehetasunak ere Kontseilu Errektorearen esku egongo dira.
- c) Kooperatibak itzultzea adostu duen ekarpenetan, ordaintzeke dauden kopuruek eskubidea emango dute ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran indarrean zegoen diruaren legezko interesa jasotzeko gutxienez, baina ezin izango dira eguneratu.
- d) Kontseilu Errektoreak itzulketari uko egitea erabakitzen badu, une horretatik aurrera eta itzulketa ukatu zaion ekarpenen bat mantentzen den bitartean, kooperatibako organo sozialek honako erabaki hauek hartu beharko dituzte, hala badagokio, 2 hilabete baino gutxiagoko epean (hautazkoa):
 - Bazkideen kapitalerako ekarpenen ordainsari gisa %0ko interes tasa ezartzea.
 - Soberakin guztiak Nahitaezko Erreserba Funtsera eta/edo Borondatezko Funtz Banaezinetara bideratzea, Nahitaezko Funtsera bideratu beharreko zenbatekoak kenduta.
 - Itzulketa eskaera berririk ez onartzea.

Itzuli beharreko ekarpenen zenbatekoa baja gertatzen den ekitaldiaren itxierako balantzearen arabera ebaluatuko da, eta aipatu bajaren datan kalkulatu da.

Batzar Nagusiak erabaki ahal izango du bazkideen kapital soziala murriztea, egokituz jotzen diren zenbatekoetan, eta, edonola ere, bazkideek mantendu egin beharko dituzte kooperatiban mota bakoitzerako indarrean dauden gutxienerako nahitaezko ekarpenak. Kasu horretan, Batzar Nagusiak zehaztuko du bazkide bakoitzari itzuli beharreko zenbatekoa eta itzultzeko epea.

Bi. Baja justifikatua bada edo heriotzagatik gertatu bada, ekarpenei ez zaie inolako kenketarik egingo.

Gainerako kasuetan, Kontseilu Errektoreak honako kenketa hauek egitea erabaki dezake:

- gehienez %30, kanporatzeagatik baja kasuetan,
- gehienez %20, borondatezko edo nahitaezko baja ez justifikatuetan; ehuneko hori bazkidearen nahitaezko ekarpenen kitapen zenbatekoari aplikatuko zaio, baina borondatezko ekarpenei ez zaie ezer kenduko. Kenkaria beste %10 handitu daiteke, baldin eta bazkideak ez badu estatutu hauetan kooperatiban geratzeko ezarritako gutxienerako denbora egiteko konpromisoa betetzen.

Hiru. Baja hartu duen bazkideari itzuli beharreko ekarpenaren deskontu egokia egiteko, baja gertatu den ekitaldiaren itxiera balantzean jasotako galerak zenbatuko dira beti, ekitaldi horretakoak izan, aurreko ekitaldietakoak izan edo konpentsatu gabe egon, kapital sozialerako ekarpenen mugaraino, salbu eta bazkideek, berariaz eta espresuki, kontratuak sinatu badituzte edo obligazioak hartu badituzte sozietate kooperatiboarekin, eta, beren izaeragatik, bazkide



izaera galtzearekin azkentzen ez badira, izan ere, baja hartu ondoren ere, kontratu edo obligazio horiek betetzearen erantzukizuna izango dute.

49. ARTIKULUA. PARTAIDETZA BEREZIAK

- Bat.** Partaidetza berezitat hartzen dira Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 67. artikuluan xedatutako erregulazioari atxikitako mendeko finantzaketak, non nabarmentzen baita finantzaketa horiek ezingo direla itzuli jaulkipenetik edo kontratazio datatik gutxienez bost urte igaro arte, eta haien ordainketa kooperatibaren emaitzen arabera finkatuko dela.
- Bi.** Batzar Nagusiaren eskumena da partaidetza bereziak onartzea, eta dagokion akordioan honako hauek zehaztu beharko dira:
- kontratazioaren edo jaulkipenaren zenbatekoa eta baldintzak, zeinak ezingo dituzten inola ere Batzar Nagusian botoa emateko edo Kontseilu Errektorean parte hartzeko eskubideak eman, eta
 - bazkideei eta soldatapeko langileei eskainitako zenbatekoa, hirugarrenei eskaini aurretik, guztizkoaren %50 baino txikiagoa izango ez dena.

50. ARTIKULUA. SARRERA KUOTAK, ALDIZKAKOAK ETA EZOHIKOAK

- Bat.** Batzar Nagusiak sarrera kuotak eta aldizkakoak zehaztu ahal izango ditu, eta bazkideek ordaindu beharko dituzte aipatutako organo sozialak erabakitzen duen aldizkakotasun, zenbateko eta moduan. Sarrera kuotak ezin izango dira izan une bakoitzean bazkide izateko indarrean dagoen kapital sozialerako gutxienerako ekarpenaren %25 baino handiagoak.
- Kuota horiek ez dira kapital sozialaren parte izango eta ezingo zaizkie itzuli bazkideei.
- Bi.** Halaber, Batzar Nagusiak ezohiko kuotak onartu ahal izango ditu puntualki, inbertsio bereziak egiteko beharrezkoa denean.
- Aldizkako kuotak eta ezohikoak bazkide mota guztiei exijitu ahal izango zaizkie edo bakarrik estatutu hauetan aurreikusitako bazkide mota batzuei.

51. ARTIKULUA. BESTE FINANTZAKETA BATZUK

Kooperatibak, aurrez dagozkion akordioak hartuta, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 65. artikuluko 3. eta 4. ataletan xedatutako finantzaketa motak erabili ahal izango ditu.

52. ARTIKULUA. SOBERAKIN GARBIAK

- Bat.** Soberakin garbiak zehazteko, merkataritza sozietateentzat ezarritako kontabilitate arauak eta irizpideak aplikatuko dira, hurrengo atalean xedatutakoa kontuan hartuta.
- Bi.** Hauek izango dira partida kengarriak:
- kudeaketa kooperatiborako emandako ondasunen zenbatekoa, merkatuko prezioak gainditzen ez dituen balorazioan,
 - kapital sozialerako ekarpenek, partaidetza bereziek, prestazioek eta kapital sozialean sartu gabeko bestelako finantzaketek sortutako interesak,
 - legez baimendutako amortizazioak,
 - kooperatibaren funtzionamendu egokirako beharrezko gastuak, eta



- indarreko lege aplikagarriek ondorio berberetarako onartutako beste edozein kenkari.

53. ARTIKULUA. SOBERAKIN ERABILGARRIEN BANAKETA

- Bat.** Soberakin garbiak, behin aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko erabiltzen diren zenbatekoak kenduta eta dagozkien zergak ordainduta, soberakin erabilgarriak izango dira.
- Bi.** Batzar Nagusiak honako arau hauen arabera banatuko ditu soberakin erabilgarriak:
- a) %30 gutxienez, Nahitaezko Erreserba Funtsera eta Kooperatiba Heziketa eta Sustapenerako eta Interes Publikoko beste Helburu batzuetarako Kontribuziora (aurrerantzean, Derrigorrezko Kontribuzioa) bideratuko da. %10 gutxienez, Kooperatiba Heziketa eta Sustapenerako eta Interes Publikoko beste Helburu batzuetarako Kontribuziora bideratuko da, eta %20 Nahitaezko Erreserba Funtsera.
 - b) Nahitaezko Erreserba Funtsa kapital sozialaren %50era iristen ez den bitartean, Derrigorrezko Kontribuzioaren alde ezarritako gutxieneko zuzkidura erdira murriztu ahal izango da.
- Hiru.** Gainerakoa, Batzar Nagusiak erabakitako proportzioetan, honako helburu hauen artean banatuko da: Borondatezko Erreserba Funts Banaezinetarako, Nahitaezko Erreserba Funtsaren hobekuntzarako edo Kooperatiba Heziketa eta Sustapenerako eta Interes Publikoko beste Helburu batzuetarako Kontribuzioaren zuzkidura gehigarriak.

54. ARTIKULUA. NAHITAEZKO ERRESERBA FUNTSA ETA KOOPERATIBA HEZIKETA ETA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA.

- Bat.** Nahitaezko Erreserba Funtsa kooperatiba sendotu, garatu eta bermatzeko da, eta ezin da bazkideen artean banatu.
- Funts horretara bideratuko dira, nahitaez, aurreko artikuluan aurreikusitako zuzkidurez gain, kapital sozialerako nahitaezko ekarpenen gaineko kenkariak, bazkideen baja kasuetan, eta sarrera kuotak.
- Bi.** Kooperatiba Heziketa eta Sustapenerako eta Interes Publikoko beste Helburu batzuetarako Derrigorrezko Kontribuzioa (aurrerantzean, Derrigorrezko Kontribuzioa) enbargaezina da, eta haren zuzkidurak balantzeko pasiboan agertu beharko dira, beste partida batzuetatik bereizita.
- Aurreko artikuluan xedatutako zuzkidurez gain, bazkideei ezarritako zehapen ekonomikoen zenbatekoa ere nahitaez bideratuko da Derrigorrezko Kontribuzio horretara.
- Hiru.** Derrigorrezko Kontribuzioan aplikatu beharreko jarraibide nagusiak Batzar Nagusiak ekitaldi bakoitzerako zehazten duen araudi espezifikoan arautuko dira, eta interes publikoko helburu hauetakoren batera zuzenduko dira:
- a) Bazkideak eta langileak kooperatibismoari, jarduera kooperatiboari eta lanpostuarekin zerikusirik ez duten beste gai batzuei buruz prestatzera eta sentsibilizatzerara.



- b) Kooperatiben arteko harremanak sustatzera, kooperatiben arteko sustapenerako, laguntzarako, zuzendaritza komunerako edo laguntza jardueretarako sortutako erakundeetan parte hartzeagatik sortutako gastuak estaltzea barne.
- c) Hezkuntza, kultura, arlo profesionala eta laguntza sustatzera, bai eta kooperatibaren ingurune sozialean eta, oro har, gizartean, kooperatibismoaren ezaugarriak zabaltzera ere.
- d) Euskararen erabilera sustatzera.
- e) Enpresa kooperatibo berriak sustatzera, euskal mugimendu kooperatiboak sustatutako irabazi asmorik gabeko erakunde bati diru ekarpenak eginez.
- f) Bazkideak eta langileak prestatzera eta sentsibilizatzen, sozietate kooperatiboetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egiteko politika eraginkorra sustatzeko.

Lau. Kooperatibak adierazitako interes publikoko helburuetarako erabili ez den Derrigorrezko Kontribuzio horren zenbatekoa, soberakinaren banaketa onartu eta hurrengo ekitaldian, irabazi asmorik gabeko erakundeei eman beharko zaie, aplikatzeko den indarreko legeriak Derrigorrezko Kontribuzio honetarako ezarritako interes publikoko helburuetara bidera dadin.

55. ARTIKULUA. BORONDATEZKO ERRESERBA FUNTS BANAEZINA

Kooperatibak, Batzar Nagusiak erabakia hartu ondoren, Borondatezko Erreserba Funts banaezina eratu ahal izango du, galerak konpentsatzeko.

56. ARTIKULUA. GALERAK EGOZTEA

Bat. Batzar Nagusiak, galerak egozteko, honako arau hauei jarraituko die:

- a) Balantzea Erregularizatzeko Funtsera, hala badagokio, ahal den zenbatekoa.
- b) Borondatezko Erreserba Funtsei, halakorik balego, zenbatekoaren zati bat edo osoa egotziko zaie, baldin eta Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu.
- c) Nahitaezko Erreserba Funtsei egotziko zaio, gehienez ere, soberakin positiboak izan diren azken bost urteetan legez nahitaezkoak diren funtsetara bideratutako batez besteko ehunekoa, eta eraketa bost urte horiek baino lehenagokoa ez bada, eratu zeneko data hartuko da abiapuntutzat. Nolanahi ere, Nahitaezko Erreserba Funtsei kooperatibaren kapital sozialaren ehuneko berrogeita hamar gainditzen badu, portzentaje horretatik gorako zenbatekoa galerak konpentsatzeko erabili ahal izango da.
- d) a), b) eta c) letren arabera konpentsatu gabeko zenbatekoa bazkideei egotziko zaie, beren jarduera kooperatibizatuaren proportzioan.

Bazkide bakoitzari egotzitako galerak zuzenean edo kapital sozialari egindako ekarpenen murrizketaren bidez ordainduko dira, edo, hala badagokio, bazkideak kooperatiban egindako edozein inbertsio finantzarioren bidez, baldin eta onarpenaren ekitaldian egozte ahalbidetzen badu, Batzar Nagusiak zehazten duen egunean.

Bi. Aurreko atalean adierazitakoa gorabehera, Batzar Nagusiak erabaki ahal izango du ekitaldi bateko galera guztiak edo batzuk kontu berezi batera egozte, etorkizuneko emaitza positiboan kargura amortizatzeko, bost urteko gehieneko



epearen barruan. Bost urteak igaro eta konpentsatu gabe geratzen diren galerak une horretako bazkide guztien artean banatuko dira, azken urteko jarduera kooperatibatuaren proportzioan, aurreko ataleko d) letran ezarritako irizpidearen arabera, eta gehienez urtebeteko epean ordaindu beharko dira.

Denbora tarte horretan baja hartzen duten bazkideei konpentsatzeko dagoen galera funtsari dagokion zatia egotziko zaie, Batzar Nagusiak kontu berezi horri egotzitako galerak bazkide guztien artean indibidualizatzeko erabakirik hartu beharrik gabe, egotzi beharreko galera bakoitzari dagokion ekitaldian jarduera kooperatiboagatik dagokion proportzioan, kapital sozialerako ekarpenen mugarekin, salbu eta bazkide bakoitzak berariaz eta banaka bere gain hartu baditu eta kooperatibaren Batzar Nagusiaren erabakietan hala jasota badago; kasu horretan, baja hartzen duen pertsonak kapital sozialerako bere ekarpenarekin osatu beharko du estaltzen ez den zatia.

Aurreko zenbakietan adierazitako epe guztiak igaro eta oraindik galerak konpentsatu gabe geratzen badira, Batzar Nagusiak erabakitako ekarpen berrien bidez edo kooperatibako bazkide izaerari eusteko beharrezkoak diren ekarpen berrien bidez ordainduko dira. Era berean, bazkidearen ekarpenak estatutuek ezartzen duten gutxienezkoak behera baldin badaude eta bazkideak ekarpen gehiago egiten ez baditu, bazkide horrek baja hartu beharko du. Hori guztia, kooperatibak konkurtsoa konkurtso legearen arabera eskatu behar badu ere.

57. ARTIKULUA. KONTU AUDITORETZA

- Bat.** Kooperatiba behartuta dago urteko kontuak eta ekitaldiko kudeaketa txostena kanpo auditoretzapean jartzera, Kontu Auditoretza Legean eta hori garatzen duten arauetan ezarritakoaren arabera, ondoko kasuren bat gertatzen bada:
- a) Arauz jartzen diren mugak gainditzen direnean. Muga horiek, gutxienez, honako hauei buruzkoak izango dira: negozio zifrari, balantzearen araberako aktiboaren zenbateko osoari eta lege horretatik edo hura garatzeko arauetatik ondorioztatzen den batez besteko enplegu kopuruari.
 - b) Batzar Nagusirako deialdia eskatzeko adinakoa den bazkide kopuru batek eskatzen duenean, eta eskatzaileek kostuei aurre egiten badiete; hala ere, kontabilitatean akats edo irregulartasun nabarmenak antzemanaz gero, itzuli egin beharko da.
 - c) Batzar Nagusiak, Kontseilu Errektoreak edo Zaintza Batzordeak hala erabakitzen duenean.
- Bi.** Auditoreak Batzar Nagusiak izendatuko ditu, eta, halakorik ezean, Kontseilu Errektoreak; kasu horretan, egiten den lehen Batzar Nagusiarri emango dio izendapenen berri.



VI. KAPITULUA. DOKUMENTAZIO SOZIALA ETA KONTABILITATEA

58. ARTIKULUA. DOKUMENTAZIO SOZIALA

- Bat.** Kooperatibak honako liburu hauek eramango ditu, behar bezala eta egunean:
- a) Bazkideen erregistroa.
 - b) Kapital sozialerako ekarpenen erregistroa.
 - c) Batzar Nagusiaren, Kontseilu Errektorearen, Zaintza Batzordearen eta Errekurtso Batzordearen aktak.
 - d) Inbentarioen eta balantzeen liburuak
 - e) Egunerokoa.
 - f) Beste legezko xedapen batzuek eskatzen dituzten liburuak.

Eta erabili aurretik gaitu beharko dira, eta, hala badagokio, Euskadiko Kooperatiben Erregistroak legeztatu beharko ditu, d) eta e) ataletakoak izan ezik.

- Bi.** Liburuak eta kontabilitateko gainerako erregistroak koadernatuta eta foliatuta joango dira. Nahitaezko liburuak osatzeko prozedura informatikoen edo elektronikoen bidez egindako idazpenak eta oharrak ere baliozkoak dira. Liburu horiek, euskarri elektronikoen egon edo paperean egon, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan legeztatuko dira sei hilabeteko epean, ekitaldiaren itxiera datatik zenbatzen hasita.

Nolanahi ere, aurreko atalean aipatutako organoen aktak, prozedura informatikoen edo antzekoen bidez egiten badira, Euskadiko Kooperatiben Erregistroa bidaliko dira ziurtagiri bidez, onartzen diren egunetik bi hilabeteko epean, legeztatu daitezzen.

59. ARTIKULUA. KONTABILITATEA

- Bat.** Kooperatibak bere jarduerarako egokia den kontabilitatea eramango du, Merkataritza Kodean eta aplikagarriak diren gainerako lege xedapenetan xedatutakoaren arabera, eta kooperatiben araubide ekonomikoaren berezitasunak errespetatuz.

Kooperatibaren ekitaldi ekonomikoa uztailaren 1ean hasi eta ekainaren 30ean amaituko da.

- Bi.** Ekitaldia ixtean, Kontseilu Errektoreak kooperatibaren urteko kontuak formulatu beharko ditu. Kontu horietan, balantzea, galdu-irabazien kontua, memoria eta, hala badagokio, ondare garbiaren aldaketen egoera orria eta diru fluxuen egoera orria sartuko dira, aplikatzekoa zaion finantza informazioari buruzko arau esparruarekin bat etorritik, eta sozietatearen ekitaldia ixten denetik gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Kontseilu Errektoreak kudeaketa txostena ere aurkeztuko du ekitaldiko urteko kontuekin batera, merkataritza legeriari jarraituz, eta, hala dagokionean, informazio ez-finantzarioaren egoera, kudeaketa txostenaren barruan edo beste txosten batean jasota.



60. ARTIKULUA. URTEKO KONTUEN GORDAILUA

Kontseilu Errektoreak urteko kontuak eta, hala balegokio, kudeaketa txostena eta kontu auditoreen txostena aurkeztuko ditu bertako kide guztiek sinatuta, Batzar Nagusiak onartu eta hilabeteko epean Kooperatiben Erregistroan gordetzeko. Kontseilariren batek sinatzen ez baditu, berariaz adieraziko da zergatik ez duen sinatu, eta baten bat sinatzen ez bada, berariaz adieraziko da arrazoia.



VII. KAPITULUA. DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

61. ARTIKULUA. DESEGITEKO ARRAZOIAK ETA ERABAKIA

- Bat.** Kooperatibak desegiteko arrazoiak izango dira:
- Estatutuetan definitutako xede soziala betetzeko ezintasun nabarmena.
 - Organo sozialak gelditzea edo jardunik ez izatea, edo jarduera kooperatibo arrazoi justifikaturik gabe etetea, bi kasuetan bi urtez jarraian.
 - Bazkide kopurua kooperatiba bat eratzeko legez behar den gutxieneko kopurutik behera murriztea, horrek hamabi hilabete baino gehiago irauten badu.
 - Kapital soziala estatutuetan ezartzen den gutxienekotik behera murriztea, baldin eta hamabi hilabete edo gehiago irauten badu murrizketa horrek.
 - Erabateko bategitea edo zatiketa.
 - Kooperatiba desegiteko adierazpena, erakunde horren likidazio fasea irekitzen duen ebazpen judizialean jasota dagoena, konkurtso egoeran dagoenean, Konkurtso Legearen testu bategina onartzen duen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.
 - Horretarako berariaz deitutako Batzar Nagusiaren erabakia.
 - Legez ezarritako beste edozein arrazoi.
- Bi.** Desegiteko erabakiak gehiago arruntez hartuko dira, aurreko e) eta g) egoeretan izan ezik, horietan bi hereneko gehiengo beharko baita.
- Hiru.** Kausa horiek gertatzen badira, Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusirako deialdia egin beharko du bi hilabeteko epean; edo, bestela, edozein bazkidek eskatu ahal izango dio Kontseilu Errektoreari deialdia egin dezala. Kontseilu Errektoreak eta interesa duen edozeinek Kooperatibaren desegite judiziala eskatu ahal izango du, hauetako kasuren bat gertatzen bada:
- Batzar Nagusirako deirik egin ez izana.
 - Batzar Nagusia Estatutuek ezarritako epean bildu ez izana.
 - Batzar Nagusia bildu bai, baina desegiteko erabakirik hartu ezin izana.
 - Batzar Nagusiak bilera egin eta desegitearen aurkako erabaki bat hartu izana.
- Lau.** Desegiteko erabakia edo hori deklaratzeko duen ebazpen judiziala Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Lurralde Historikoko zabalkunde handiko egunkari batean argitaratu.

62. ARTIKULUA. LIKIDAZIOA

Kooperatibaren likidazioa Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 91. artikuluan eta hurrengoetan eta indarrean dauden eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan jasotakoaren arabera egingo da.

63. ARTIKULUA. SOZIETATEAREN ONDASUNAK ESLEITZEA.

- Bat.** Sozietaetaren ondasunak ezin izango dira esleitu edo banatu, harik eta sozietaetaren zorrak oso-osorik ordaindu arte, zor horiek kontsignatu arte edo mugaeguneratu gabeko kredituen ordainketa ziurtatu arte.



-
- Bi.** Aurreko atalean zerrendatutako zorrak ordaindu ondoren, sozietatearen gainerako ondasunak hurrenkera honetan esleituko dira:
- a) Kooperatiba hezkuntzarako eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren esku jarriko da.
 - b) Bazkideei kapital sozialari egindako ekarpenen zenbatekoa itzuliko zaie, hala badagokio eguneratuta, borondatezko ekarpenetatik hasi eta nahitaezko ekarpenekin jarraituz.
 - c) Bazkideei estatutuetan edo Batzar Nagusiaren erabakiz banatzeko modukoak diren Borondatezko Erreserba Funtsetan duten partaidetza itzuliko zaie. Funts horiek estatutuetan edo akordio horretan ezarritako arauen arabera banatuko dira, eta, halakorik ezean, bazkide bakoitzak azken bost urteetan kooperatibarekin egindako eragiketa, zerbitzu edo jardueren proportzioan, edo iraupen laburragoko kooperatiben kasuan, eratu zireneko data abiapuntu hartuta.
 - d) Bai Nahitaezko Erreserba Funtsetan bai kooperatibaren ondasun likidoaren soberakina, halakorik balego, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren esku jarriko da.
- Hiru.** Estatutu hauen 52. Bat. b) artikuluan xedatutako ekarpenak itzultzen ez diren bitartean, baja eman duten titularrek eta itzulkinak jasotzeari dagokionez kooperatibaren ukoa jaso dutenek sozietatearen ondasunen esleipenean parte hartuko dute, kooperatiba sustapen eta hezkuntzarako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa egin ondoren, eta, estatutuetan kontrakoa xedatzen ez bada behintzat, gainerako ekarpenak itzuli aurretik.



AZKEN XEDAPENAK

LEHENA.- ARBITRAJE KOOPERATIBOA

Kooperatibaren eta kooperatibako bazkideen artean harreman kooperatibizatuen esparruan –baita likidazio aldian ere– sortzen diren auziak Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren zuzenbideko arbitrajearen mende jarriko dira nahitaez, kooperatibaren barne bideak agortu ondoren, baldin eta organo horrek eskumena badu aipatu auziak ebazteko. Eta aldeek berariaz hitzemango dute arbitraje horren ondoriozko laudoa beteko dutela.

Kooperatibako bazkideek, edozein motatakoak direla ere, bazkideen eta kooperatibaren artean beren izaeragatik sor daitezkeen gatazkak konpontzeko, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legean, lege hori garatzeko arauetan, estatutu sozial hauetan edo kooperatibaren barne arauetan ezarritako barne bide kooperatiboa agortu beharko dute aldez aurretik.

BIGARRENA.- LETRADU AHOULKULARIA

Kooperatiba, Kontu Auditoretzaren Legean edo lege hori garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera, behartuta badago bere urteko kontuak kanpo auditoretza baten pean jartzera, letradu aholkulari bat izendatu beharko du, Kontseilu Errektorearen erabakiz.

Letradu aholkulariak sinatu egingo ditu Batzar Nagusiak edo Kontseilu Errektoreak hartu eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskriba daitezkeen erabakiak, eta zuzenbidearen arabera diren ebaztiko du.

Erabaki horien ziurtagirietan jasota geratuko da letradu aholkulariaren irizpena duten akordio horiek akta liburuan jasota daudela.

Zabarkeria profesionala egon bada, letradu aholkulariak erantzukizun zibila izango du kooperatibaren, haren bazkideen eta hirugarrenen aurrean.

Egiteko horretan jardutea bateraezina izango da zuzendari gerente edo Kontseilu Errektoreko kide izatearekin.

Kooperatibaren eta letradu aholkulariaren arteko harremana honako hau izan daiteke: profesional liberal gisa zerbitzuak alokatzekoa, lan kontratu bati lotutakoa edo sozietate arlokoa, kooperatibako lan bazkide gisa.

HIRUGARRENA.- DELITUAK PREBENITZEKO EREDUA ETA SEGIMENDUA EGITEKO MEKANISMOAK.

Bat. Kooperatibak, berrogeita hamar bazkide baino gehiago dituenean, Delituak Prebenitzeko Eredu bat izan beharko du, horien jarraipena egiteko mekanismo bat ezarriz.

Bi. Eredu horren edukia Kontseilu Errektoreak egingo eta onartuko du, eta Batzar Nagusiak berretsiko, eta honako hauek jasoko ditu: arriskuen mapa; erabakiak hartzeko protokoloa; kudeaketa eredu; salaketa sistema; zehapen araubidea; egiaztapen sistema; aldizkako berrikuspena eta Delituak Prebenitzeko Ereduaren eguneratzea.

Hiru. Delituak prebenitzeko eredu eta eredu horrek funtzionatzen duela eta betetzen dela gainbegiratzeko ardura ekimen botere eta kontrol botere autonomoak dituen kooperatibako organo bati eman behar zaio, edo, bestela, pertsona juridikoaren barne kontrolen eraginkortasuna ikuskatzeko legezko funtzioa



duen organo bati. Kooperatibak 250 bazkide baino gehiago ez baditu, Kontseilu Errektorearen esku utziko da funtzio hori. Kopuru hori gainditzen badu, ordea, organo espezifikoa bat izendatu beharko da funtzio horiek bere gain hartzeko, zigor arloko indarreko araudian horrela ezarrita dagoelako.

LAUGARRENA.- KOOPERATIBA INDARKERIA SEXISTARIK GABEKO EREMU BAT IZATEKO BALIABIDE ESPEZIFIKOAK

- Bat.** Kooperatibak indarkeriarik gabeko lan eremuak edukiko ditu, non emakume eta gizonentzako berdintasun printzipioak errespetatuko diren.
- Bi.** Kooperatibak sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokolo bat edukiko du. Protokolo horretan, sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruz aurkeztutako erreklamazioak eta salaketak ebazteko jarduketak jasoko dira, eta behar diren bermeekin aplikatuko da.
- Hiru.** Kooperatibak beharrezko prestakuntza eta informazioa eskainiko die bere lan bazkide guztiei eta besteren konturako langile guztiei, aipatutako eskubideak erabat errespetatuz jarduteko beharraz jabetu daitezten. Kooperatibako gainerako bazkide motei ere eskainiko zaie.

BOSGARRENA.- KOOPERATIBA ARRAZA EDO JATORRI ARRAZOIENGATIK DISKRIMINAZIORIK GABEKO EREMUA IZATEKO BITARTEKO ESPEZIFIKOAK.

Kooperatibak konpromisoa hartzen du arraza, etnia eta/edo nazionalitate arrazoiengatik diskriminaziorik egon ez dadin.